

23. zenbakia
2001eko urria

U R I B E K O S T A K O A L D I Z K A R I A

uk

Naia Eguzkiza

Hogeita lau urte, algortarra.
Modeloa da eta orain telebistako aurkezlea
ere bai

• unai iturriaga • drogak • antzerki eskola • irlandarrak •

egizu!



GETXOKO UDALA
Euskara Zerbitzua



berbabarri



[irudia]



ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta E.B.E.
HELBIDEA: Amesti 6, 4. solaina, 5. begoia 48990 GETXO
e-mail: aldizkari@euskalnet.net / Posta Kutxa 171 / Td & fax: 94 491 13 37
ZUZENDARIA: Jokin Aspuru
ERREDAKZIOA: Maitane Buruko, Itziar Benedé, Javi Gonzalez del Herrero
ARGAZKI ARDURADUNA: Mikel Martinez
TESTUEN ORRAZKETA: Joseba Burroo
INFOGRAFIA: Guillermo Almagia
MARRAZKILARIA: Gorka Vázquez
KOLABORATZAILEAK: Bitor Egurola, Eñi Eskerra, Jokin de Pedro, Isauro Anna, Gaitza Escudero, Xabí Bilbao, Unai Elorriaga, Algorako Bernolari Eskola, Alaitze Kaminaga, Iñuri de Cos, Krisina Sangronia, Janire Kortostegi
ADMINISTRAZIOA: Konrado Mugerra
PUBLIZITATEA: Gorka Ormaza (94 491 13 37)
FILMAZIOA: ARGIA / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799

Osorik edo zati, makinaz zein informatikaz kopiatzea, baimen buri, erabot galarazirik dago
© BOLUNTZARRETA
Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta eskura elkareen TOPAGUNEko parteidea da



Aldizkari honek Bizarra Lepoan Euskara Elkartearen dirulaguntza jasotzen du



IXASGANE ERTEA / KARITATE 1



GETXOKO UDALA

Aldizkari honek Getxoko Udaltaren dirulaguntza jaso du



Leioako Udala

Aldizkari honek Leioako Udaleko Euskara Zerbitzuak dirulaguntza jaso du



Erandioiko Udala

Aldizkari honek Erandioiko Udaltaren dirulaguntza jasotzen du



Bizkaiko Foru Aldundia

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du

ALDIZKARIA jaso

nahi duenak deitu

baino (94 491 13 37)

ez du egin behar.

Pozik onartzen

ditugu zuen dirulaguntzak:

BBK 2095 0022 00 91 02483676

Ohiturak

Linuaren penak eta nekeak

Neskatilek soloko ataltxo batean linua ereiten zuten ezkontzarako arreoa prestatzeko

Antzinako garaietan linugintzak garrantzi handia izan zuen Euskal Herrian. Mende hasierara arte linua, artilearekin batera, oihalak, jantziak, etab. egiteko lehengaia izan zen. Horregatik neskatila gazteek soloko ataltxo batean linua ereiten zuten, apurka-apurka euren ezkontzarako arreoa prestatu ahal izateko. Linuaren ardura osoa emakumeena zen; ereitea, zaintzea, eta azkenik haria egitea, baina beti ere garaitiko etxeko lan guztiak egin eta ostean.

Linugintzaren prozesua lan neketsua eta luzea zen oso, ederto adierazten digu hori esatera zahar honek: linuaren atsekabeak, amaigabeak.

Linua eskuz ateratzen zen sustraitik, egun batzuetan soloan sikatzen utzi eta eskutadak edo liñu-balak egin ondoren etxera eramaten zituzten, ganbarara. Ondorengo urratsa garrama deritzon orraziaz hazia kentzea izaten zen. Gero gurdian edo astoaren gainean errekara edo putzura eraman eta beratzen uzten zuten hamar-hamabost egunez, linua sasoindu arte.

Hamabostaldia igaro eta gero linu-sortak larrinean eguzkitan zabaldu behar ziren, sika zitezen eta azala ustel zekien. Gero etxeko atarian linarrian zanpatu; hau gizonen lana izaten zen. Ondoren linua ezpatatu eta trangatu, gero suhasketa egiten zen eta, azkenik, orrazketa.

Ekintza honek prest uzten zuen linua iruten edo goruetan hasteko, hau da linu-harigaia hari bihurtzeko, gero berarekin izarak, alkandorak, zapiak, etab. egiteko. Baina “O Pello, Pello!” kantu ezagunak dioskun moduan prozesu hau ere oso luzea zen. Harigaia irundu, astalkatu, zuritu, harilkatu, irazkitu, pikatu eta josi egin behar izaten zen. Hauxe izaten zen antzinako amen eta amamen neguko gauetako jardunik nagusienetarikoa.

Hau guztia ikusi eta gero, inor animatzen da linuzko alkandorarik egiten?

[URRIA]

Urriak udazkenaren etorrera dakarkigu gogora: udaren eta neguaren arteko iraganbide eta aldagune; baina, sarri jazotzen den legez, ezusteren bat edo beste ere ekar dezake berea ez den jantziarekin agertzen denean: “Urriko elurra, bost hilabeteko elurra”.

Urrian basora joateak orri beilegiz eta gorritzaz beteriko ikuskizuna eskaintzen digu: hostoen umotasun osoa, natura-arnasaren gainbehera koloretan ageri. Lizardiren hitzetan:

Udalehenak irria
ohi du zoro ozena;
udak, haragikoia;
udazkenak, bena...

Udazkenak irria bena, tristea... baina ezin ederragoa!

Udazkeneko hur, intxaur, eta gaztaina: basoko bizitzaren berri emaile bakarrak, udaberrian ernaldu, udako eguzkiarekin heldu eta orain erditzen diren zuhaitzen emariak. Baina horretarako hile amaierara begira jarri beharko: “urriaren azkenean, gaztaina etxean”. On egin!

JOKIN DE PEDRO

San Jorge eta Herensugea



Josu Alda

Gurutze Gorriko teknikaria

“Pentsa litekeen baino askoz jende gehiagok eskatzen digu janaria”

Testua: Javi G. del Herrero / Argazkia: Mikel Martinez

Josu Alda getxoztarra da eta zortzi urte dara-matza teknikari lanetan Gurutze Gorrian, 1992an Gizarte Saila sortu zutenetik. Sail honen helburua baliabide gutxiko jendeari laguntza ematea da; elbarriei, soldata eta diru-laguntzarik gabeko familiei, agurei... Orain, beste programa batzuen artean, Gurutze Gorriak “Soberakinen programa” (“programa de excedentes” delakoa) jarri du martxan, eta honi buruz zerbait gehiago jakiteko, UK Al-dizkariak Josurengana jo zuen. Arriluzeko kaian Gurutze Gorriak duen aretoan elkartu ginen.

Zu zeu “Soberakinen programa”ren arduraduna zara. Zer da eta zertan datza janari banku hau?

Beno, hasteko ez ditugu kontzeptuak nahastu behar, eta Janari Bankuak eta guk egingo dugun “Soberakinen programa” ez dira gauza bera. Janari Bankuek zera egiten dute; super-merkatu handietan galtzear dagoen janaria aprobetxatu galdu baino lehen. Gero behar dutenen artean banatu egiten dute eta kito. Gure lana guztiz ezberdina da, guk ez dugula-ko erabiltzen janari hori. Gure eskuetara hel-tzen diren produktuak Europa Elkarteko soberakinak dira. Soberakin hauek ezin dituz-te saldu prezioak gorabeheraka ibiliko lirateke-lako. Beraz, guri ematen dizkigute banatzeko.

Beraz, zuek bitartekari hutsak zarete? Ez. Guri ematen dizkiguten produktuak ezin dira horrela banatu. Adibidez, emandakoa olioa edo ozpina izan daiteke eta horrek guri horrela ez digu ezertarako balio. Beraz, egiten dena zera da: produktuak trukatu, baina ez diruagatik, baizik eta janariagatik; adibidez, enpresa batek olioa eraman dezake sardinen truke, haiek olioa behar dutelako beraien produkziorako eta guri ematen diguten pro-duktoa bukatuta dagoenez, banatu baino ez dugu egin behar.

Nori dago zuzenduta zerbitzu hau? Benetan behar duten guztiei; baliabide gu-txiko edo baliabiderik gabeko jendeari.



Jende asko al dago egoera horretan Uribe Kostan?

Pentsa dezakeguna baino askoz gehiago. Orain arte, adibidez 40 bat pertsonak eskatu dute, baina badago lotsagatik eskatzen ez duen jende asko. Gainera, hemen, familiaren laguntza beste leku askotan baino nabarmenagoa da eta jende askok senideengana jot-zen du gugana etorri baino lehen.

Nortzuk dira zerbitzu hauek gehien eskatzen dituztenak? Denbora luzeko langabetuak, aita edo ama baino ez duten familiak...

Zeintzuk dira betebeharrak laguntza hau jaso ahal izateko? Oinarrizko errenta baino gutxiago kobratu behar da. Hori da eskatzen den betebeharrak bakarra. Eskakerak “Ongizate Sailak” eta Gurutze Gorriak aztertzen dituzte. Informazio gehiago nahi duenak hurrengo zenbakira dei dezake: 94 460 92 95.

Hasi zarete jada janaria banatzen?

Ez, oraindik ez. Urtean birritan egiten dugu eta hilabete honetan (urrian) hasiko gara, baina oraindik ez dakigu noiz.

Zenbat bolondresek egiten dute lan progra-ma honetan Uribe Kostan? Egin beharreko lana dirudiena baino gehiago da eta gaur egun 15 lagun daude..., gehiago beharko genituzkeen arren.

Nora jo beharko luke proiektu honetan edo eta Gurutze Gorriko beste edozein arlotan lagundu nahi duenak? Lagundu nahi duenak lehen eman dizudan telefonora dei dezake eta egin nahi dutenen arabera, guk badauzkagu heziketa ikastaro-ak. Jendeak jakin dezala, nahi duenak lagundu dezakeela; ez dagoela adinik lagun-tzeko eta norberak aportatu dezakeena eskertzekoa dela beti. m

*Gurutze Gorria / T.: 94 460 92 95

[photo-finhitz]

Argazkia: Mikel Martinez / Testua: Unai Elorriaga

Atapuercan eguzkitan



Besterik dirudien arren Arrigunaga da hau. Antza, zikinkeriak ekartzen ditu itsasoak, hondakinak, eta harriaren ondoan pilatu. Hondakinak fantasmak balira, horma zeharkatuko lukete, baina hondakinek fantasma izateari aspaldi utzi zioten (rugbyan jokatzeari utzi zioten bezala) eta galdu dute hormak zeharkatzeko ohitura, joera zaharra eta venerablea zen arren. Kontuak horrela, itsasoak ekarritako hondakinak hormaren kontra metatzen dira, besterik ezean.

Prozesu logiko eta interesgarri honen bigarren pausoa dator ondoren. Hormaren kontra pilatu diren hondakinek jesarleku ezinhobea sortzen dutela igarrita, herriko pertsona inteligenteenak izaterik hurbil dauden batzuek jo dute jesarleku natural honetara (hondakina ere naturala baita). Hor ikusten ditugu, guztiz sosegatuta. Hori ez dut nik azaldu behar. Hori ikusi egiten da. Gustatzen zait sosegu hitza, bide batez esanda.

Baina ez da hemen amaitzen kontu guztia. Honezkero begi bi eta neurona bat daukana konturatuko zen jesarrita daudenen gainean “Atapuerca” idatzi duela baten batek. Gezi bat marraztu du, gainera, behera begira. Eta geziak sugandila akusatzaileak bezalakoak dira. Ikusi duzue inoiz epaiketa batean akusatzan ari den sugandila bat? Nik bai. Eta gezi baten modukoa da, igual-iguala.

Kontua da ez dakidala izkribu horrek zeri egiten dion erreferentzia: hondakinei ala pertsoneri. Badakigu Atapuerca aztarnategi bat dela, eta bertan aurkitutako hezurrek-eta milaka urte dituztela, edo dozenaka urte dituztela. Izkribu hori hondakinei buruz ari bada, tira. Pertsoneri egiten badie erreferentzia, umore beltza da, edo beltzarana behintzat.

Nik batez ere eguzkia ikusten dut argazki honetan. Neguko eguzkitan egotea bizio txiki bat da (arropa lodiak dituzte uda izateko). Neguko eguzkitan egotea bizio unibertuala da gainera, munduko herri guztietan ikusten dena, ahal izanez gero eskimalek eurek ondo gustura egingo luketena. Orduan galdera txiki bat etortzen zait burura eta testuetan galderarik sartzea gustatzen ez zaidan arren (mania arraroagorik daukaten pertsonak ere izango dira seguruenik), galdera batekin amaituko dut atal hau. Seguru nago, gainera, (“gainera” gehiegi sartu ditut gaur) zuetako batek baino gehiagok egin diozuela galdera bera zuon buruari. Kontua da metroa Bilbon hartzen dela sarritan, Indautxun esate baterako, eta eguraldia Bilbon goibel eta ilun egoten dela askotan, ezta? Orduan, metroa Algortara heltzen denean, zergatik egoten da eguzkitsu ia beti? 4



[lehen]

Iraganez doa
denbora* beti

1971/2001

Biotz Alai Abesbatzak Juan José Gainzaren zuzendaritzapean disko bat plazaratu zuen 1971. urtean Columbia disketxearen eskutik. Disko hartan besteak beste, Goizeko izarra, Olentzero, Maite edo Boga boga kantak zeuden. Goiko argazkia disko haren azala duzue. Mikel Martinez gure argazkilariari, argazki hartan agertzen ziren lagunak atzera elkartzea otu zitzaion, leku berean eta 30 urte igaro ondoren (beheko argazkia). Ezkerretik eskuinera: Joserra Méndez “Bocón”, Crucita Esesumaga “la Pipi” eta Enrique Montano.

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea

[orain]

BARBIRULAU 5 BOST

ALGORTA

dj.ak
antzerkia
erakusketak

k
r
i
m
e
a



Negubide 13
Tel. 94 463 61 82

AREETA



Taberna Berri

Sarrikobaso 4 - ALGORTA
Tf.: 944 306 493

jateko



urdaitegia • frutadenda • elikagaiak

Amezti 4 - Tf.: 94 491 06 54
ALGORTA

[literatura]

Hitzaldia Ramon Saizarbitoria

Irakurzaileen txokoaren eskutik azaroaren 6an

Irakurzaileen txokoak gonbidatu berezi bat jasoko du azaroan: Ramon Saizarbitoria. Donostiarrak aurten Kritika saria irabazteko balio izan dion liburua izango du hizpide, bost narrazio biltzen dituen Gorde nazazu lurpean.


Euskal idazle handienetako bat dugu Saizarbitoria (Donostia, 1944). Soziologia ikasi bazuen ere (gaur egun horixe du lanbide), gazetarik letren mundura atxikita egon da. Beste idazle batzuekin batera, Lur argitaletxea sortu zuen 1967an. Urte batzuk beranduago Oh! Euzkadi aldizkariko lan taldera igaro zen Koldo Izagirrerekin batera. 1969an bere lehen liburua kaleatzearekin batera, goitik behera irauli zuen euskal literatur esparrua. Ordura arte pentsaezina eta jorraezina zen gai bati helduz, eta Frantzia pil-pilean zegoen nouveau roman teknikari jarraiki, Saizarbitoriak Egunerok hasten delako liburua osatu zuen.

Horretan abortatzera doan Giselle neskatoaren istorioa kontatu zuen.

Urte batzuk geroago, 1976an zehazki, Ehun metro nobela ospetsua argitaratu zuen. Politikoki konprometitua zela-eta, hura kalera-tzeko arazo dezente izan zituen donostiarrak. Haren ostean etorriko ziren Ene Jesus (ohetik mugitu ezinik dagoen gaixo baten istorioa), Hamaika pauso (Otaegiren bizitzan oinarriturikoa, Kritika saria jaso zuen 1995ean), Bihotz bi. Gerrako kronikak (bikote baten maitasun-gorrotari buruzko nobela), eta Aberriaren alde (eta kontra) saiakera liburua. Behin bakarrrik jorratu du ipuingintza, 1971n Hegatsez aldizkarian kaleraturiko Kapitaina lanarekin.

Iazko Durangoko azokan aurkeztu zuen Saizarbitoriak Gorde nazazu lurpean nobela, eta ordutik hona laudorioak baino ez ditu jaso idazle donostiarrak. m

Ramon Saizarbitoriak "Gorde nazazu lurpean" liburua izango du hizpide



Ania Linas (Erein)

[euskara]

Jardunaldiak Leioan

Sarasola, Txepetx, Sarasua, Zuazo, Amonarriz... entzuteko aukera paregabea

Aurten Leioak herri bezala bere 475 urte beteko ditu. Urteurren berezi hori ospatzeko egitarau zabala antolatu dute. Aurten ere, hizkuntzen urtea izendatu du NBek. Aitzakia bi hauek baliatuta Leioako Udaleko Euskara Zerbitzuak, Euskararen herritik munduari begira lemapean euskarari buruzko jardunaldi bikainak antolatu ditu. Jardunaldiok urriaren 16tik 20ra bitartean luzatuko dira eta horietan hizkuntzetan adituak diren lagun asko entzuteko aukera egongo da. Besteak beste, Txepetx, Jon Sarasua, Ibon Sarasola, Koldo Zuazo, Kike Amonarriz, Catalunya-bererengere etorritako adituak... izango dira jardunaldiotan hizlari gonbidatuak. Hitzaldiok Leioako Musika Eskolan eta Artatza Jauregian egingo dira, sarrera doan izango da (argibide gahiagotarako: 94 400 80 44).

Bestalde, eta ospakizun honen harira, Leioako euskarari buruzko Leioa berbarik berba liburuaren aurkezpena egingo da. Liburua Iñaki Gaminde adituak egin du. Lan oparo hau egiteko Iñakik Leioako euskaldun zaharren testigantzak baliatu izan ditu. Liburuarekin batera CD Rom bat argitaratuko da, eta bertan testuak eta irudiak ez ezik Leioako euskara ere entzun ahal izango da. m



Iñaki Gamindek Leioako euskarari buruzko "Leioa berbarik berba" liburua idatzi du. Datorren UKn berari egindako elkarriketa argitaratuko dugu.

ENEKO



BAR ANUSIA 8



Importaziozko zerbezarik onenak
Terraza zabala

basarte'na

Tel. 946 76 11 28
URDULIZ

SATISTEGI



ADITUAK GARA

PINTXO ETA
BoKATA
BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA
% 94 46019 69

Errotalde ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A
ANDRA MARI GETXO

aldai

TAPIZTEGIA

DEKORAZIOA

ERAKUSKETA

ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

LAINOA

Urgull 3, ALGORTA

foto xabier

argazkiak



Doctor Landa z/g
Tfno. 94 676 03 09
SOPELA

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO
Neguriko Etorbidea 9
T: 491 14 87
48990 NEGURI

KIMETZ GARATE AZURMENDI
Aingeruaren etorb. 4B
(sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 GETXO

[kirola]

Surf Garazi Sánchez Bederatzi urteko surf izar gaztea

Garazi Sánchez Ortún; hori da getxoztar surfzale amorratu honen izen osoa. Garazik bederatzi urte baino ez ditu eta hala ere, dagoeneko txapeldun handia da. Orain dela bi urte hasi zen surf egiten eta ordutik zaletasun eta trebetasun handia erakutsi ditu. Sopelan dagoen Reef Billabong Surf Eskolan hasi zen ikasten eta zortzi urterekin bere lehenengo surf txapelketan hartu zuen parte eta baita irabazi ere; Bizkaiko surf txapelduna izan zen bere mailan. Geroztik garaipenak eta Garazi eskutik dabilta Europako hondartzetatik: Bizkaiko txapelduna izanda, iaz hirugarren geratu zen Frantzian jokatu zen Gromet Tropic Txapelketan eta aurten garaipenak biderkatu egin dira: lehenengoa Bizkaiko Txapelketan, bigarrena Euskal Herrikoan, bigarrena Gromet Tropic Trofeoan eta lehenengoa Frantziako Karma Beach Txapelketan.

Surfaren munduaren inguruan mugitzen diren begiratzaleek ez dute galdu Garaziren progresioa eta dagoeneko neskatala honek babesle ugari ditu: Surf Mundaka (oholak ematen dizkio), Billabong (surfa egiteko jantzi termikoa), Rusty, Globe...

Baina, noski, arrakasta lortu ahal izateko zortea baino zerbait gehiago behar da; lana eta ekina, eta Garazik badaki zer den hori. Neskatala kirolzale hau (gurasoak mendizale amorratuak dira eta berak ere eskalada eta sakanen jaitsiera egiten zituen surfeari hasi baino lehenago) egunero joaten da bere nebarekin Sopelako hondartzara trebatzera; goizeko bederatzietatik ilundu arte udan, eta arratsaldero, klasetik atera bezain pronto, neguan.

Lan horrek honezkero bere fruituak eman ditu; bederatzi urte baino ez dituela Garazi izar handia da eta seguru asko las-ter bere izena denon ahotan ibiliko da.

Egunero entrenatzen da Garazi Sopelako hondartzan



Mikel Martínez

[arte]

Mikel Martínez



Mikel Martínez

Harremanetarako:
e-mail: ainaragarcia@yahoo.es
mugikorra: 656 732 768

Moda Ainara Garcia

Arropa: euskarri artistiko mugikorra

Goiko argazkian ikusten diren arropak Ainara Garcia “Ni naiz” ize-
neko proiektu artistikoaren emaitza dira. “Ni naiz” proiektuan nor-
tasunaren gaia planteatzen du Ainarak. Euskal Herriak bizi duen
egoera sozio-ekonomiko-kultural aldakorrean, (globalizazioa...) gizarte-
a bere nortasunaren bila dabil, ikusi daitezkeen sinboloen bila.

Norberaren herriak zer esan handia dauka baten nortasunean; loka-
la dena harrotasunarekin, malenkoliarekin eta leku horretarako mai-
tasunarekin nahasten dira. Gauzak horrela, Ainarak Euskal Herriko
herrien izenak motibotzat hartu eta jantziak izen horiekin serigra-
fiatzea erabaki zuen. Bere ibilbide artistikoan beste lan bat zena, arte-



azkartasuna
kalitatea
prezioa
kamisetarik onenak
preziorik onenean!
zure kamiseta, publi-
zitate artikulua eta
fotokopia denda

zure markarik onenak sport wear-ean

Serigrafia eta transfer

Super
prezioak!!!

LAGUN TALDEAK!!!

**Kamisetak, Sudaderak, Poloak,
Prakak, Euritakoak....**

 ATOR	ALGORTA Algortako etorb. 106 Tf.: 94 460 10 31 / Fax: 94 460 86 62	BILBO (lantegia eta biltegia) Moncada 9, 3. Tf.: 94 410 37 07 / Fax: 94 410 34 46 e-mail: atorfym@euskalnet.net	LEIOA Sabino Arana etorb. 86 Tf.: 94 480 04 46 / Fax: 94 480 04 46
---	---	---	---

Euskal Herriko Idazleak



Bestelako gaiak

- Drogak
- Politika
- Bidaia
- Osasuna
- Sexualitatea
- Munduko literatura

Alangoeta 8
(Euskal Herria kalearekin bat) Tfn.: 94 491 23 79
Algorta




basurto
algorta S.L.
altzariak

telletxe 15, algorta
T: 460 71 62 - 460 42 44

CALENDOS
RIKI
UMEAK -GAZTEAK

Kale Nagusia 30 - T: 4645543 - AREETA

VILLABOTAS
IATETXEA



Menu merke eta bariatuak
Especialitateen karta
Giro atsegina

T: 430 43 33
Villaondoeta 2, ALGORTA

[aisia]

Etorkizuna Mendi Taldea

25. urteurrena ospatzeko egitarau oparoa

Orain dela 25 urte Itxasgane Mendi Taldetik, talde berri bat sortu zen Algortan; Etorkizuna Mendi Taldea hain zuzen ere. Talde hau jaio zenean herriko gazteen elkarte bakarra zen eta orduan inork ez zuen espero 25 urte iraungo zuenik. Baina aurren Etorkizuna-k bere 25. urteurrena beteko du eta sortzaileetako inor geratzen ez den arren, elkartearen arduradunek ekintza ugari antolatuko dituzte data berezi hau ospatzeko asmoz. Aipatzekoak dira laster hasiko diren mendiko arriskuei buruzko ikastaro teorikoa, Bizkaiko Federakundeko medikua dena Kepa Lizarragak eskainiko duen solasaldia edo eta Willy mendizale ezagunak emango duena ere. Etorkizuna Mendi Taldeko monitore eta arduradunek beste ekintza batzuk ere egin dituzte. Adibidez, postontzi bat jarri zuten Berangoko Agirremendin, taldeko sortzaileetako bat izan zen Isidro Martiarenaren omenez. Horrez gain, urriaren 28rako ibilaldi neurtu bat antolatu dute eta beste 14 irteeta urte

osoan zehar, batzuk erreagoak (Otsala, Gorbea, Arkamo-ko zeharkaldia...) eta beste batzuk gogorragoak (Pirinioak, Peña Urbina, eta abar), baina guztiak egiteko modukoak.

Gaur egun Etorkizuna Mendi Taldeak 80 bat bazkide eta 400 federatu ditu eta Foru Aldundiaren eta Getxoko Udalararen dirulaguntzei esker, bazkideen urte osorako kuota 1.000 pezetakoa da soilik. Irteera ezberdinen prezioak aldakorak dira egunen eta bidaien arabera, baina 40 bat lagun izaten dira normalean apuntatzen direnak. Ibilaldiak prestatzeko bilerak asteartero egiten dituzte Etorkizuna Mendi Taldeak duen aretoan (Basagoiti Etorbidea 69, Algorta) eta edonork parte hartu dezake. Apuntatu edo informazio gehiago jaso nahi duenak 626 10 45 11 telefonora deitu dezake.

Algortako Etorkizuna Mendi Taldeak 25 urte bete ditu eta horrek ospakizun handi bat merezi du. Zorionak eta askoz gehiago izan daitezela! m

Isidro Martiarenaren omenez postontzi bat jarri dute Etorkizunakoek Agirremendin



Mikel Martinez



Bere lanak "Guinea maquetas" Algortako dendan ikus daitezke

Zaletasunak maketak

Nazioarteko lehiaketetan hartzen du parte Aitor Azkuek

Gustukoa zuelako hasi eta gaur egun bere zaletasuna hobby-a baino askoz gehiago bihurtu da Aitorrentzat. Maketa militarrek dira bere espezialitatea eta edozein motatakoak egiteko gai den arren, horietan dira gehien gustatzen zaizkionak. Gehien eskatzen direnak arrainontziak eta etxeenak izaten dira, baina maketa hauek ez dira militarrek baino merkeagoak: "Prezioa ezberdina izan ohi da eraikuntzaren neurria eta erabilitako materialen arabera. Adibide bat jartzeagatik, ohizko materialekin egindako tamaina erdiko maketa batek 100.000 pezeta inguru balio du. Jende gehienari hori garestitxo iruditzen zaio, baina kontuan eduki behar da maketa hori egiteko hilabete oso bat eman dezakegula lanean jo eta ke", dio Aitorrek. Azken urteotan

getxoztar honek txapelketa ezberdinetara aurkeztu eta emaitza onak lortu ditu. Aste pare bat barru Ingalaterrara joango da beste txapelketa handi batean parte hartzera. "Europar maila oso altua da. Ia ezinezkoa da errusiarren aurka lehiatzea, baina Euskal Herrian ere gauza politak egiten ari dira". Aitorrek artikulatu ere idazten ditu "Euromodelismo" aldizkari espezializatuan; "Argazkiak erabilia, urratsez urrats, maketa egin ahal izateko prozesu guztia azaltzen dugu".

Aitor Azkueren maketak ikusi edo eta erosi nahi dituenak Basagoiti etorbidean dagoen Guinea maquetas dendatik pasatu daitezke. Bere lanak erakuslehoan egoten dira erakusgarri, baita bere



BILBO MICRO

"1982az geroztik
soluzio informatikoak
eskaintzen"

ELKARTE ANONIMOA

Colón de Larreategui, 25 / 48001 BILBAO / Tf. 4230212 / Zerbitzu teknikoak: 4230213



**KURKUDI
LIBURUDENDA**

**Euskarazko
irakurgai**

Juan Bautista Zabala 8, 48990 ALGORTA
T: 944 913 402

I
Iñaki
Bitxitegia
Ω
 OMEGA AGENTZIA OFIZIALA
 Villamonte plaza 3 T: 4302345
Algorta

BISITATU
GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa
Kirol *moda*



350 m²
KIROLERAKO
GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA

TORRENE 4
ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA
TF. 94 491 18 82

[hizkuntza]



Ibilaldia 2002 Getxon

Zergatik da karramarro bat Ibilaldiaren irudia?

Ibilaldia 2000ren irudi kanpaina egitea Bilboko A+L Comunicación enpresari ego-
 kitu zaio. Izenez gehienoi ezezaguna ger-
 tatuko bazaigu ere, eurek egindako lan
 asko guztiok ikusi ahal izan ditugu: birzi-
 klaia zuzpertzeko Bilboko udalak egin berri
 duen Simpson-en kanpaina euren azken
 lanetariko bat da, edo Euskara zure za-
 pore! kanpaina. Bada, enpresa horretako
 Adolfo Lasartek Ibilaldiaren logotipoa, iru-
 dia egin behar zutela jakin zuenean, zerbait
 dinamikoa, aukera desberdinak eskaini zi-
 tzakeena izan behar zuela pentsatu zuen eta

horregatik pertsonaia bat asmatzea buru-
 ratu zitzaion, ondoren animalia bat, mas-
 kota bat izan behar zuela erabaki zuen.
 Getxo kostako herria izanik, segituan
 karramarroaren irudia etorri zitzaion buru-
 ra eta ondoren bere lan taldea behin betiko
 irudia sortu arte lanean aritu zen. Esan
 bezala, animalia bat erabiltzeak aukera asko
 eskaintzen ditu eta Adolfo azaldu digun
 moduan, pertsonaia hori modu desberdi-
 netan azalduko da, komunikazio beharren
 arabera. Adibidez, Ibilaldiak musika kon-
 zertu bat iragarri behar badu, karramarroa
 gitarra jotzen ager ditek, edota kirolerako
 gune baten berri eman behar bada, ba,
 karramarroa eskalada egiten agertu
 daiteke. Begi zorrotzak dituen,
 atoan konturatuko da erabili
 diren koloreak Algortako San
 Nikolas ikastolako logotipo-
 aren koloreak direla, izan
 ere, enpresa berak egin zuen
 ikastolako logotipoa eta ho-
 rrela, kolore berberak erabi-
 liz ikastolaren irudia ere
 zabaltzen da. m



A+L Comunicación
 Marqués del Puerto 6, 5. Bilbo
 94 424 53 24

UK ALDIZKARIA

jaso nahi baduzu deitu

94 491 13 37

Pozik onartzen ditugu zuen dirulaguntzak

BBK 2095 0022 00 91 02483676

[mikologia]

Jardunaldiak Algortan

Basozaleak elkartaren eskutik

Perretxikoak urte osoan zehar dauden arren, udazkenean eskuzabalagoa izaten da natura eta askoz gehiago hazten dira basoetan. Hau dela eta, Getxoko Basozaleak Elkarte Mikologiko eta Botanikoak, urtero legez, Jardunaldi Mikologikoak antolatu ditu, aurtengoak hamaikagarrenak dira. Perretxikozaleen jakinmina hasetzeko egitarau oparoa osatu dute Basozaleak elkarteko kideek. Adibidez, jardunaldiok ganoraz hasteko txango mikologikoa antolatu dute urriaren 27an (zapetua) goizez Euskal Herriko eta inguruko bazterre-tara. Deialdia zabala da eta nahi duenak eman dezake izena 667 075 175 telefono zenbakira deituta. Irteera horretan hartutako perretxikoeekin, bihamunean, hau da, urriaren 28an (domeka) goizean, erakusketa paratuko dute San Nikolas plazan 11:00etatik aurrera. Bertan perretxikoak ez ezik erakusketa fotografikoa ere ikusi ahal izango da, eta hori gutxi balitz, 12:00etatik aurrera, perretxikoak dastatu ahal izango dira. Egun eta leku berean, lehiaketa mikologiko bat egingo da maila bitan banatua: gazteek 10 espeziaren azter-keta egin behar izango dute, eta nagusiek 20rena. Sari bana-keta egun berean 13:30etan izango da. Jardunaldiak lau hit-zaldirekin jarraituko dute: "Pinudietako perretxikoak" (urriak 29), "Laminadun perretxikoen sailkapena I (azaroak 5), II (azaroak 6)", eta amaitzeko "Oinarritzko mikologia" (azaroak 9). Hitzaldi guztiak arratsaldeko 19:30etan izango dira Itxasgane Etxean, (Karritate kalea 1, Algorta). m

Basozaleak elkarteko lagunak astelehera zazpiak eta bederatzia bitartean elkartzen dira Itxasgane etxean duten bulegoan. Nahi duena bildu daiteke hara. Argibide gehiagotarako 619 669 204 telefonora deitu.

Mikel Martinez



THE SECRET GARDEN

Kiromasajista: Ana M. Blanco Imatz / Esteticien: Susana Gragera



SOLARIUM

36 HODI EKOLOGIKO + AURPEGIRAKO 3
 HIGIENE OSOA

MASAJEAK

TRATAMENDUAK

TERAPEUTIKOA-LASAIGARRIAK / ANTIZELULITUKOA- ERREALFIRMANTEA
 ERREFLEXOLOGIA / DRENAJE LINFATIKOA

Natura Bissé

DIAMOND azalerako bitxia

-DEPILAZIO ZERA. Gorputz tenperatura
 -DEPILAZIO ELEKTRIKOA. Elektrologo diplomatua
 -DEPILAZIOA LASER
 -AURPEGIRAKO TRATAMENDUA
 -KUTISAREN GARBIKETAK
 -MIKROPIGMENTAZIOA ETA TATUAIA

-BEKAINENTZAKO TINTE ETA PERMANENTEA
 -MAKILAJEA (ETXEAN) **eskatu ordua!**
 -KOLOREZKO KOSMETIKA **120 m²-zura**
 -GIMNASIA PASIBOA **zerbitzura!**
 -KONPLEMENTOAK

eta orain... *fisioterapeuta diplomatua...*
traumatologia, kirol fisioterapia, errematologikoa...

Algortako etorbidea 106 • 94 460 62 01 • 48990 ALGORTA

Film laburra “Loops”

Tucker Dávila-ren eta Pablo Viar-en filmea Los Angeles Short Film Festival-ean

Los Angeles-eko film laburren lehiaketa munduko garrantzitsuenetakoa da. Datu bat: han saritzen dituzten film laburrak zuzenean joaten dira Oscar-etara. Bada, urtero milatik gora lan aurkezten dira sariketa horretara eta horiek guztietatik 50 baino ez dituzte aukeratzeko antolatzaileek han lehiatzeko. Aurten horien guztien artean Tucker Dávila errealizadore plentziarraren eta Pablo Viar aktore algortarraren Loops filma aukeratu dute. Film honek, Getxon estreinatu ondoren, estatu osoan zehar antolatzen diren hainbat lehiaketatan hartu du parte eta beti sari gabe suertatu da; izan ere, gaur egun kalitate handia dago film laburretan, horixe esan digu behintzat Tucker-ek.

Egileen hitzetan, maitasun istorio absurdu bat den lan honetan, mundu mailako errekor bat lortu nahi duen gizon baten istorioa kontatzen da. Protagonistak sidekarrean errotonda bati itzuli gehien ematen duen pertsona izan nahi du eta horrela, ospea lortu. Ospetsu izateko obsesioa, inor izateko telebistan agertu beharra... hori guztia azaltzen da “Loops”en. Azken batean, geure bizitza konplikatzeko daukagun gaitasunaren metafora izan nahi du filmak.

Esan bezala istorio honen sortzaileak Tucker eta Pablo izan dira. Biak oso gazteak baina hala ere, oso jantziak. Tucker-ek bost urte eman zituen New York-en ikus-entzuteko ikasketak egiten. Ondoren, eta Euskal Herrian dagoen panorama audiobisual exkaxa ikusita, beste hainbat euskaldunek bezala, Madrilerako bidea hartu zuen orain dela urte bi. Han lanean dihardu harrezkero free lance moduan errealizadore lanak egiten; bideo industrialak, publizitatea, eta orohar irudiarekin zerikusia izan dezakeen guztiari heltzen dio. Bere azken lanetako bat, MTV musika telebista katea garrantzitsuenean egunotan ikusi daitekeen bideoklip bat izan da.

Pablo aktorea da. Getxoko Antzerki Eskolatik pasa ostean, hiru urte eman zituen Ingalaterran, hango arte dramatiko eskolarik esanguratsuenean ikasten; London Academy Music & Dramatic-en. Orain Getxo eta Madrilen artean bizi da.

Tucker eta Pabloren pasioa zinema da eta bizi irauteko halabeharrezko lanari denbora lapurtuta, istorio berriak asmatzen jarraitzen dute. Elkarrekin egindako azken lana eta jarraipena izan nahi duena, “Con ustedes... Santiago Oiol” parodia telebisiboa izan da. m

Ezkerrean Pablo Viar aktore algortarra, alboan Tucker Dávila zuzendari plentziarra



Mikel Martínez

Mikel Martínez



Bederatzi hilabete eman dituzte Antzerki Eskolakoek lan hau prestatzen

Estreinaldia Sezuango Arima Garbia

Getxoko Antzerki Eskolaren eskutik Bertolt Brecht-en lana euskaraz urriaren 18an

Bertolt Brecht dramagile alemaniarraren lanik ezagunenetarikoa Sezuango arima garbia (La persona buena de Sechuan), datorren urrian estreinatuko dute Getxo Antzokian Antzerki Eskolako bosgarren irtenaldikoek. Bederatzi hilabete eman dituzte goiz eta arratsaldez entsaiatzen eta neke eta ahalegin hauen guztien fruitua datorren hilean ikusi ahal izango dugu; urriaren 18an euskaraz estreinatuko dute, 19an gazteleraz. Hau izan da Getxoko Antzerki eskolak euskaraz egin duen lehenengo lana, gaur arte ez dute-eta aukerarik izan; baina oraingoan, ikasle euskaldun asko daudenez, aukera aprobetxatu dute eta Carlos Beiges-en zuzendaritzapean, emaitza onak lortuko dituztelakoan daude.

Lan hau antzertu ahal izateko, Getxoko Antzerki Eskolak Eusko Jaurlaritza eta Getxoko Udalaren dirulaguntzak eduki ditu. Ricardo Lizartza izan da lana euskaratu duena. Guztira hogeitabat lagunek

osatzen dute lan taldea (aktoreak; iluminazioaren arduraduna, Oscar Grijalva; eszenografiarena... eta abar). Konpainia bakoitza hamabi aktorek osatzen dute eta, beraz, hamazazpi aktoreetako batzuek euskaraz eta erdaraz antzertzen dute. Aurrestreinaldia ekainean izan zen eta orain irrikitan itxaroten dute suzko proba izango dena; datorren 18ko estreinaldi nagusia. Jakin badakite ez dela erraza izango jendea aretora eramatea (drama izanda eta, gainera, euskaraz...) baina, beti bezala, Getxoko Antzerki Eskolakoak arriskatzeko prest daudela esan digute.

Sezuango arima garbia Bercht-ek idatzitako tragikomedia komunista eta zorrotzak hurrengo galdera planteatzen digu: onak eta zintzoak izan gaitzke bizi garen mundu krudel, konkurrente eta kapitalista honetan? Erantzuna urriaren 18an, iluntzean, Getxo Antzokian. m



Trikuharrien aztarnak Muñarrikolandan. Atzean, Alberto Díez Saiz historialaria

Aztarnak berangoztarrek 40.000 urte

Muñarrikolandan sei tumulu eta trikuharri baten aztarnak daude

Irudimen ariketa bat proposatzera goaz. Pentsa ezazu, irakurle, orain 40.000 urte Berangok eta bere inguruak izan behar zuten itxura. Kendu burutik eskualde honetako etxeak, errepideak eta saltokiak, lantegiak eta kale zabalak. Ezabatu burutik pinu eta eukaliptu berde gris zurbilak eta ekarri burura zelai berde luzeak, arte, gaztain, karraskilu, ametz eta sasiz betetako abaroak eta padurak. Imajinatu orein eta basurdeak han-hemenka, lertxun eta ubarroiak egunsentian itsasadarretan barrena; Gobela eta Eguzkitzako erreketan igaraba amorrainjaleak. Entzun ezazu orduko soinu nagusia, entzun isiltasuna. Badira suak ere, bada jenderik eta. Gutxi hala ere. Orain 40.000 urte bazen jenderik Berango inguruan.

Zelan jakin hori, ordea? Aztarnak hala erakusten digutelako. Zaharrenak Sopela inguruko Kurtzia aztarnategian aurkitu ziren

aspaldian, baina ikusgarrienak seguruenik Berangon bertan daude, hain zaharrak ez diren arren. Muñarrikolandako aztarnategiaz ari gara. Berangoko hilerri ondoko bidean gora joz gero erraza da haraino heltzea, Sopela eta Berango arteko mugan baitago Atxarbiñekolandako lepoan hasi eta Muñarrikolandako gainaren bitartean. Sei dira bertan aurki daitezken monumentu megalitikoak: bost tumulu eta trikuharri bat.


Ezaguna denez, monumentu hauek hildakoak lurperatzeko erabiltzen ziren eta aipagarria da oso toki estrategikoan daudela kokatuta, bertatik eskualde ia osoa ikuskatzeko aukera dago eta. Hor bertan zenbait tresna ere aurkitu izan da.

Esan bezala, monumentuok ez dira hain zaharrak eta adituen ustetan 4.000 urteren gorabeheran daude, neolitiko garaikoak dira.


Berangoko monumentu megalitikoak

- Trikuharriak: monumentu megalitikoak dira, lurrean zutik finkatuta dauden hainbat harritz eta hauek estaltzen dituzten zenbait harlauzaz osatuak. Gorpuak ehorzteko erabiltzen ziren.
- Tumuluak: lur edo harri metaketa handiak dira, hilobi bat edo gehiago (sarritan trikuharria) estaltzen dutenak. Historiaurrean oso aruntak izaten ziren.

Alberto Díez, ikerlea



NEKEZ EGONGO DA INOR Berangoko historiaz Alberto Díez Saizek baino gehiago dakiela. Berangoko historiaz eta historiaz orokorrean. Izan ere, horietan dira Albertoren zaletasunik handienak. Antzinako kontuekin maiteminduta bizi da, heraldikan, edo beste zeozer aipatzeagatik, deituren jatorrian aditua handia da. Albertoren beste obsesioetako bat errotak dira. Idatziak ditu honezkero hauei buruz liburu bi: *Molinos de viento de Bizkaia* eta *Molinos de río del valle del Asua*. Gure herriaren antzinako ondarea gordetzea, berreskuratzea, desagertzen ez uztea dira beti egiten dituen aldarrikapenak eta ez du horretan nekerik hartzen. Alberto orain 30 urte hasi zen Berangoko historia ikertzen eta lan haren fruitua aspaldian argia ikusi zuen *Berango 40.000 años de historia* liburuia izan zen. Bertan tituluak argi adierazten duen moduan herriaren historiaren azterketa sakona egin zuen; geologia, klima, historiaurrea, Berangon aurkitutako fosilak, aztarnak, antzinako baserriak, bertako deiturak... Alberto ez da bakarrik asko dakien gizon bat, dakiena konpartitzea ere gustatzen zaio. Berak erakutsi zizkigun Muñarrikolandako monumentu megalitikoen aztarnak.



Urte asko dira monumentu hauen berri izan dugula, baina jakineza izan da nagusi jende gehienaren artean. Ezjakintasun horren ondorioz oso egoera larrian daude monumentu hauek. Izan ere, basogintza lanak izan dira bertan orain dela gutxi eta basoak ustiatzeko egin dituzten pisten ondorioz zenbait tumulu ia hondatuta utzi dituzte. Badirudi oraindik ere badabiltzala primitiboren batzuk hortik zehar.

Antza denez egoera tamalgarri honi irtenbidea eskaintzeko pausuak ematen hasi dira. Zorionez. Jakin digunez, Berango eta Sopelako udalek monumentu megalitiko hauek berreskuratzeke plangintza bat burutu nahi dute Aldundiarekin batera. Monumentuak berreskeratu ez ezik horretan zaletu eta nahi dutenak bertaratu ahal izateko bide bat egiteko egiteko asmoa ere badago. m

Testua: Iker Lores / Argazkiak: Mikel M.

IKASTAROAK



euskaraz

ARETOKO DANTZAK

Ostegunero
Erromoko Kultur Etxean
20:00 / 22:00
4.000 pta.
Hasteko eguna: urriak 18
SUKALDARITZA
Asteazkenero
Algortako txoko batean
4.000 pta.
Hasteko eguna: urriak 17

*Izen emateko: 94 491 43 57 (arratsaldean)

OLENTZARORI 1. ESKUTITZ LEHIAKETA

OINARRIAK

- Partaideek Olentzarori eskutitzak bidali ahal izango dituzte lehiaketa honetara.
- Lehiaketak bi kategoria ditu:
 1. Euskarategi mailan.
 2. Herri mailan.
- Ondokoak dira lehiaketara aurkezteko oinarritzko arauak:
 - 3.1. Idazlanaren luzera: 300 eta 350 berba bitartean.
 - 3.2. Ahal dela, idazmakina.
 - 3.3. Eskutitz bakoitzaren lau ale igorri behar dira.
- Interesatuak nahi adina eskutitz aurkeztuz esku hartu ahal izango dute, euskaraz. Eskutitz guztietan izenorde edo goiburu berezia jarri beharko da. Eskutitz gutunazal baten barruan sartuko da, eta hori kanpoaldean izenordea idatzia izango duen beste gutunazal baten barruan sartuko da, barmean egilearen datuak dituen (izen deiturak, adina, helbidea eta telefonoa).
- Eskutitzak Getxoko euskaltegietan, hau da, Jose Antonio Agirre euskaltegian, AEK-Lauaxetan, AEK-Ganbaran edo Udal euskaltegian, edota Bizarra Lepoan Euskara Elkartearen egoitzan (Karitate kalea 1, sotoa 10.bulegoa – Algorta) utzi behar dira.
- Onarpen epea: azaroaren 12an.
- Epaimahaiaren epaia jakinaraziko da eta erantzunezina izango da. Sarien banaketako eguna eta ordua partehartzaileei esango zaie.
- Originala eta dibertigarria izatea kontuan hartuko da.
- SARIAK, kategoria bakoitzean:
 1. saria: 20.000 pezetako bonoa.
 2. saria: 10.000 pezetako bonoa.(Saria zertan datzan, Egizuko batzordeak epai egunean esango du)
- Sariturik gertatzen diren eskutitzak UK aldzkarian plazaratuko dira abenduko zenbakian.

TABAKOA



Kontsumoa: jeneralean zigarrotan erretzen da

Salneurria: marka eta motaren arabera, 200 eta 400 pta. artean.

TABAKOA eragin laburreko droga pizgarria da. Beste droga legez kanpoko guztiek batera baino askoz heriotz gehiago eragiten ditu urtero; milioka zenbatu daitezke. Jende gutxi daki marka bakoitzaren zapore bereizgarria fabrikatzaileek tabakoari gehitzen dizkioten aditiboek eragiten dutela. Tabakoaren keak lau milatik gora substantzia ditu: alkitranak (minbizia eragiten dute), karbono monoxidoa (oso toxikoa), nikotina (adikzioaren eragilea)... Luzaroan erretzen bada bronkitis kronikoa, biriki, aho, laringe zein urdail minbizia, gaixotasun kardiobaskularrak edota bihotze-koak izateko arrisku handia dago. Tabakoa oso adiktiboa da eta nikotinaren abstinentzia sindromeak antsietatea, imsomnioa, nekea, buruko mina... eragiten ditu.

ALKOHOLA



Kontsumoa: Alkohol etilikoa duten edarietan edaten da. Zerrenda amaigabea da eta nahiko ezaguna.

LIKIDO kolorea da, azukrea duten fruta edo landare-zuku fermentatuen destilaziotik lortzen dena (adib. mahatsa, sagarra, erremolatxa...). Berez etanola edo etil alkohola da. Ohitura eta onarpen sozialagatik ez da drogatzat hartzen. Dituen efektuak, aldagai askoren arabera, desberdinak izaten dira: edaten den kantitatea, pisua, sexua, edalearen izakera... Neurritz edaten bada alkoholak pertsonak hurbildu ditzake eta baldintza egokiak badira, bihotzak alaitu. Baina dosi handietan eta sarritan edaten bada oso kaltegarria da. Ansiolitiko eraginkorra da eta bere efektuak sentimenduak apaltzen ditu. Jende askorengan, berriz, jarraera oldarkor-rrak eragiten ditu. Zalantza barik alkoholak gaur egungo gizartean funtzio balsamikoa betetzen du. Jarraian gehiegizko kontsumoak alkoholiko bihurtzen du pertsona.

HAXIXA



Kontsumoa: jeneralean tabakoarekin nahastuta erretzen da.

Beste izen batzuk: Porroa, txirria, kikia, peta, kanutoa, trokoloa eta beste hainbat.

Salneurria: kalitatearen arabera, 1.000 pta. gramoko, g.g.b.

BEREZ kalamutik ateratzen den erretxina da baina gaur egun merkatu beltzean aurkitu daitekeen sustantziarik faltsutzuena da. Faltsuzteko besteak beste, henna, goma arabigoa, zimaurra eta olio industrialak erabiltzen dira. Gehiena Marokotik dator. Oraindik kontsumoa eta banaketa ilegala den arren bere kontsumoa oso hedatuta dago. Pertsona guztiei ez die modu berean eragiten. Dosi txikitari barregurea, kolore zein soinuekiko sentiberatasun handiagoa edota desio sexuala eragin ditzake. Kontsumoaren gehiegikeriak, guztia-erikiko interes falta, oroimen galtzea eta kontzentratzeko arazoak eragin ditzake. Jeneralean erretzen da eta erretzeak dituen gaitzak eragiten ditu: adibidez arnasteko arazoak...

MARIHUANA



Kontsumoa: tabakoarekin nahastuta edo bakarrik erretzen da.

Beste izen batzuk: Maria, belarra...

Salneurria: nekez topa daiteke merkatuan, eta ezin da jakin.

ZENBAIT kalamu bariatetaren (*Canabis sativa*) lore eta hosto ihartuen nahastea da, tabako gisa erreta droga bezala erabiltzen dena. Marihuana mota batzuk besteak baino askoz indartsuagoak izaten dira. Haxixaren aldean ez da gorputzerako hain kaltegarria, ez delako beste substantzia aditibo batzuekin nahastuta egoten eta sarritan tabakoarekin nahastu barik kontsumitzen denez, ez ditu azken honek eragiten dituen kalteak sortzen. Efektuak haxixaren antzekoak dira. Ez du menpekotasunik sortzen, ohiturak menpekotasun psikologikoa sor dezakeen arren. Gurean dagoen marihuana gehiena partikularrek euren kontsumorako propio landatutakoa izaten da. Hala ere, droga illegaltzat jotzen da eta horregatik isun arrazoia da.

Drogak gurean

Entziklopedian begiratuz gero, zera irakur daiteke: «Droga: substantzia psikotropo natural zein sintetiko nerbio-sistema zentralari eragiten diona eta kontsumoak gehiago (eta askotan dosi handiagotan) hartzera bultzatzen duen menpekotasuna sortzen duena». Droga modu batera zein bestera gizarte guztietan egon dira beti, eta gainera beti egongo direla esaten da. Honetaz ohartuta, erakunde publikoek drogen kontsumoaren aurkako mezua zuzenean izaten duten eragin eskasa ikusita, kanpaina asko, drogen kontsumo ziurra eta drogamenpekotasunean ez erortzeko aholkuak ematera bideratzen hasi dira. Adibidez, zer egin behar den gehiegizko droga hartzen denean, zeintzuk diren droga desberdinak nahastearen ondorioak, zer egin biharamuna edo ostea hobeto igarotzeko... Bestalde, droga negozio handia da; legez babestuta daudenek Estatuaren kuxak diruz betetzen dituzte; ilegalek, berriz, trafikatzailenak. Baina droga hortxe daude, erraz eskuratu daitezke; Uribe Kostatik irten barik hartu ditugu irudi hauek guztiak. Euren buruz ezjakintasun handia dago, batez ere, legez debekatuta daudenei buruz. Orrialdeok ezjakintasun horren iluntasuna argitu nahi dute.

Testua: Jokin Aspuru / Argazkiak: Mikel Martínez

Iturriak: Eusko Jaurlaritzako Droga Gaietarako Idazkaritza / Ai Laket / Elhuyar Hiztegi Entziklopedikoa

MONGIAK




Kontsumoa: jaten den perretxiko mota bat da: *Psilocibe Cubensis* da bere izen zientifikoa.

Salneurria: Nekez aurki daitezke merkatu beltzean. Kontsumitzaileek mendian bertan hartzen dituzte.

IZEN honekin mendietako larre zimaurtsuetan hazten diren *psilocibe* motako perretxiko txiki ugari dago. Urte gutxian horien kontsumoa izugarri hasi da gure inguruan eta ez da zaila gazte asko perretxiko hauen bila mendian ikustea. Jende askok nahiago ditu mongiak beste sustantzien aldean alternatiba naturala direlakoan. Akatz handia da hau, droga gogor gehienak jatorri naturalekoak direlako. Mongiak jan eta ordu erdira egiten dute efektua, behin hasita ez dago gelditzerik. Efektuok LSDaren oso antzekoak dira, hau da, aluzinogenoak dira. Barre algarak be eragiten ditu. Pertsona batzuegan, berriz, larritasuna, paranoiak eta ero bihurtzearen izua pizten dute. Bestalde, sarritan mongiak direlakoan okerreko onddo toxikoak jateko arriskua ere badago.

LSD-A



Kontsumoa: paper sekanteetan edo mikropuntutan egoten da eta ahotik irensten da.

Beste izen batzuk: Tripia, ajo... Paper sekanteetan egoten den irudiaren arabera: supermanak, mikropuntu...

Salneurria: 2.000 pta. g.g.b.

AZIDO lisergikoaren dietalimina (LSD) transpertsonalaren mugak hautsi ditzakeen molekula kimiko indartsua da. Gure buruaz eta inguruaz dugun irudia alda dezake eta gure nerbioi-sistema zuzenean nahasten du. Paper sekanteetan itsatsita egoten da dosi mikroskopikoetan hartzen delako. Tripia jan eta 30 minutu ondoren efektua sentitzen da: gauzak ikusi eta sentitzeko modua aldatzen da, aluzinazioak izaten dira eta bai gorputzaren zein denboraren zentzua aldatzen da. Tripi baten eraginak 12 ordu iraun dezake eta behin hasita ez dago gelditzerik. Horregatik tripiak hartzean "bidaiaz" hitz egiten da. Txarra bada, izua eta beldur-ikara sentitu daiteke. Flashback-ak ager daitezke, hau da, tripiak hartu eta egun batzuk geroago tripien efektua berriro ere sentitu daiteke.

KOKAINA



Kontsumoa: sudurretik irensten da edo zigarroei itsatsita erreta.

Beste izen batzuk: Farlopa, perika, burro...

Salneurria: Aldakorra. 10.000 / 12.000 pta. gramoko g.g.b.

SEGURU asko mundu osoan pizgarri ilegalik erabiliene da. Horren produkzioa eta banaketa diru kantitate itzela mugitzen duten adar askotako mafia izugarrien esku dago. Esan bezala, substantzia pizgarria da kokaina. Hartzean jeneralean, norbera erre sentitzen da, edozeri aurre egiteko gauza eta indartsu; komunikazioa eta kontzentrazioa errazten ditu eta ez da kontrola galtzen. Droga ilegal gehienak bezala oso adulteratuta egoten da eta kalean saltzen denak nekez izaten du %40 kokaina klorhidrato. Adiktiboa da eta oso garestia denez kalte ekonomiko handiak eragiten ditu pertsona askorengan. Sarritan hartzen bada, sudur tabikea zulatu dezake. "Bajoia" indartsua da eta gehiagotan hartzera bultzatzen du.

HEROINA



Kontsumoa: Erreta, sudurretik irentsita, janda, edota uraz nahastuta zainetan injektatuta. Azken hau gero eta gutxiago egiten da.

Beste izen batzuk: Kabbalo, jako...

ZEOZER azpimarratzekotan heroinaren adikzio maila izugarria azpimarratu behar da. Heroinaren kontsumo iraunkorrak eragiten duen abstinentzia sindromea edo "monoa" ezaguna da eta hau gainditzea oso zaila izaten da. Heroinak sarraski itzela eragin zuen 70eko eta 80ko hamarkadetan: milaka hildako, kartzela, HIESa... Honek bere kontsumoa urtetik urtera jaistea ekarri du. Opiazeo hau hauts marroi edo zuria itxura du eta mina arintzeko erabili izan da medikuntzan. Analgesiko indartsu hau kontsumitzean bakea, ongi izatea eta segurtasuna sentitzen dira; aldi berean, hустasun emozionala eragiten du. Droga ilegalen artean osperik txarrena duena da. Belaunaldi gazteek ez dute heroinaren "garai beltza" ezagutu eta zenbait girotan berriro agertzen hasi da.

[berbetan]

GuillermoCanales

“Kalte eta hildako gehien eragiten ari diren drogak droga legalak dira, hau da, tabakoa eta alkohola”

Guillermo, Uribe Kostako Mankomunitateko Drogamenpekotasunen Prebentziorako Zerbitzuko buru da. Hortaz, bai drogetan eta baita hauek eragin ditzaketen gaitzetan ere aditua da.

Testua: Jokin Aspuru / Argazkia: Mikel Martinez

—Guillermo, zuona bezalako zerbitzu batek zer egiten du? Zein da nolabait, zuen lan egiteko filosofia?

—Zerbitzu honen izenak dioen moduan gure lan nagusia drogek eragin dezaketen menpekotasunei aurre egitea da. Baina ez gara horretara mugatzen, HIESa, sexualitatea... eta horrelako gaiak be lantzen ditugu. Zerbitzu sozialetako sailarekin elkarlanean gauza asko egiten ditugu. Bestalde, drogak egon dira, badaude eta egongo dira. Badaude droga legalak eta legez kanpokoak, azken hauek deigarriagoak izan daitezkeen arren. Gauzak horrela, gazte, guraso edota helduei programa informatiboak zuzentzen dizkiegu, eta baita drogak hartzen dituztenei, gitxiago eta arrisku gutxiagorekin kontsumitu dezaten. Gure filosofia ez da drogen debekuzko filosofia, gure izenak dioen moduan, prebentziorako zerbitzua gara.

—Drogekin arazoak dituenak zuengana laguntza eske jo dezake?

—Jakina, baina guk ez dugu tratamendurik egiten, ez da gure lana. Informazioa ematen dugu, eta arazoa duenari nora jo dezakeen esaten diogu.

—Erantzuna ez da erraza izango, baina, zergatik hartzen ditu drogak jendeak?

—Ez dago arrazoi bakarra, asko dira: efektuehatz bat bilatzea... Beste motibo bat izan daiteke, drogak bizitzeko modu batekin lotzen direla. Adibidez, gure gizartean poteoa ohitura da, ezta? Eta gero gazteak euren litronekin kalean edaten ikusten ditugunean eskuak burura eramaten ditugu. Esan dizudan bezala ez dago drogatzeko arrazoi bakarra. Adibidez, lotsatia den bat, besteekin komunikatzeko arazoak dituena, egoera hori aldatzeko substantziak erabili di-

tzake. Baina gertatzen dena zera da, drogek, bai legalak eta baita legez kanpokoek ere, ondorio kaltegarriak dituztela. Baina zure galderaren hariari helduz, arrazoiak asko dira: jakin-mina, plazerra bilatzea, taldearen presioa (gazte taldeen artean sarri gertatzen da hau, droga hartu edo edaten ez duena

“Nolabait, gaur egun drogen kontsumoaren banalizazio alai bat ematen ari da”

ergeltzat jotzen da)... Eta gero, beharbada eta nik modu zakarrean esaten dudana, drogak anestesia moduan hartzen duen jende asko dago, hau da, lan arazoak, familiakoak edo arazo pertsonalak ahazteko anestesia moduan drogak hartzen dituen jendea.

—Noiz hitz egin daiteke drogamenpekotasunaz?

—Milioko galdera da hori. Erantzun klasikoa haxe da: substantzia bat, bere dosiagatik, maiztasuna eta kontsumitzeko moduagatik, norberarentzako eta bere ingurukoen-tzako kaltegarria denean. Adibidez, batek bere diru gehiena drogan xahutzen duenean, eta horretan baino pentsatzen ez duenean; baten lanean eragina duenean, edo bere harreman pertsonaletan... Bestalde, askok substantzia motari baino ez diote erreparatzen: hau droga da eta beste hau ez. Adibidez, alkohola bai baina haxixa ez. Badago muga bat, ez da argia baina egon badago. Baina, bestalde, onartu behar da badaudela nahiz eta noizean behin drogaren bat hartu, arazorik ez duten pertsonak.

—Zelan dabil gurean drogen kontsumoa, Guillermo?

—Egiten diren ikerketak erkidego mailan

egiten dira, ez dira hain ikerketa lokalak egiten. Baina Uribe Kosta bere osotasunean hartuta, esan dezaket Bizkaia, Euskal Herria zein Europa mailan, gure eskualdea ez dela gehiegizko droga kontsumoagatik nabarmentzen. Beharbada, garai batean heroina kontsumoa oso handia izan zen baina orain

ez. Gehien kontsumitzen diren drogak, legalak dira hau da, tabakoa eta alkohola. Eta kalte eta hildako gehien eragiten dituztenak dira.

—Lehen porro bat erretzen zuena drogadiktoa zen...

—Zorionez garai hori pasatu da, lehen esaten zen porroekin hasten zela eta hori heroinarako bidearen hasiera zela. Baina nik azpimarratu nahi nuke, nolabait gaur egun drogen banalizazioa alai bat ematen ari dela. Ematen du heroina kenduta edozein substantzia har daitekeela, eta kontua ez da hori.

—Alkohol asko edaten da hemen...

—Egia da baina azken bi urteotan kontsumoaren bilakaera bide hobetik doala esan daiteke. Labur esateko, 1998ra arte, polarizazioaren fenomenoa ikusten zen, hau da, abstemio asko zeuden eta aldi berean, sarritan asko edaten zuen jendea. 2000.ean berriz, joera hau zorionez aldatzen hasi zen: gehiago dira orain noizean behin edaten dutenak eta jai egunetan edaten dutenak; eta gutxiago dira, berriz, abstemioak, jai egun guztietan beti edaten dutenak eta egunero edaten dutenak.

—Droga ilegalen artean haxixa da hedatue-



“Drogak hartu nahi dutenek ezagutzaz eta arriskuak kontuan izanda egin behar dute”

na, ezta?

—Bai, goranzko joera izan du. Erretzaile gehienak, 20 eta 34 urte artekoak dira. Hala ere, gazteagoen artean ere erretzen da. Deigarria eta kezagarria da gazte batzuk eskolara joan aurretik ere erretzen dutela. Lehen esan dudan moduan gu ez gara drogen kontrako zerbitzu bat, gurea prebentzioa da. Nik uste dut cannabisarekin gehiegizko marketina egon dela: aldizkari espezializatuak daude, marihuana hostoak dituzten nikiak, txiskeroak, Jamaikako banderak, legalizazioaren aldeko mezuekin hainbat artikulu... Ba, marketin honek guztiak inork espero ez zuen eragina izan du, itzela. Eta mezu hauek oso jende gaztearengana heldu dira, hamabi eta hamalau urteko gazteengana. Hauetariko bati esanez gero

“cannabis” erantzungo dizu: “legalizazioa”, eta, gainera erantzuna arrozituko dizu: terapeutikoa dela, naturala, ikerketak dau dela... Eta hau gehiegizkoa iruditzen zait.

—Jende helduaren artean...

—Drogen banalizazio hori ere joera indartsua da. Hori hitzaldiak-eta antolatzen ditugunean ikusten da. Helduek ez dute tabako edota alkoholak eragiten dituzten kalteei buruz ezer entzun nahi. Eta ez naiz hau esateaz inoiz nekatzen: droga legal hauek dira arazo eta hildako gehien eragiten ari diren substantziak. Bestalde, pilulak, botikakoak erabiltzeko ohitura handia dago: ezin lorik egin, ba lo egiteko pilula; apur bat urduri egonez gero, barrura orfidala; antsietate apur bat sentitu eta, tranquimazin...

Horrelako arazoak psikiatra edo psikologo batekin konpondu behar dira. Egia da baita, osasun publikoak ez duela psikoterapiarik eskaintzen eta sarritan jendea droga hauekin sedatu baino ez da egiten. Arazoa konplexua da.

—Droga berriak, “maitasunezko pipulak” eta... antza asko hedatu dira.

—Egon badaude baina ez entzuten den beste. Fenomeno hau 89an Londresen hasi zen maitasunaren uda deitu zen hartan. Gero Ibizara zabaldu ziren eta handik gurerara ailegatu ziren; Bilbon 95ean bazeuden kalean salgai. Esan bezala egon badaude, baina ez dira erabilienak, ezta gutxiago ere. Diskoteka droga deitzen zaien droga hauen artean, berriak heltzen ari dira gurerara, adibidez, ketamina. Baina askotan onena gauza hauetaz medioetan aipamenik ez egitea da. Eskatera handitzea baino lortzen ez delako. Hori gertatu zen ruta del bacalao ospetsuarekin. Hedabideetan agertu arte, gauza marginala zen. Mediotan azaldu ostean, estatu osoko gazteak hara abiatzen hasi ziren.

—Merkatu beltzean saltzen diren drogen arrisku handienetakoa adulterazioa dela esaten da...

—Azken boladan denon ahotan dabilen kontua da hori, arazo bakarra balitz bezala. Gauza jakina da gehienak oso adulteratuta daudela. Haxixa asko. Badaude kalitate testak egiteko tramankuluak, baina gu ez gara institutuetan horrelakoak banatzen hasiko, ez da gure lana. Gero, kalean dabiltzan pilula horiek loteria dira, auskalo zer ematen dioten bati. Zerrenda oso luzea da.

—Amaitzeko, mezuren bat bidali nahi duzu, Guillermo?

—Ba, esandakoaren laburpen txiki bat. Drogak, egon dira eta egongo dira eta horregatik eurekin bizitzen ikasi behar dugu. Drogen aurkako erabateko kanpaina galduta dago, baina debeku osoaren artean eta permisibitate osoaren artean badago aldea. Ezin da onartu drogen aldeko zuzpertze alai hori, ezer gertatuko ez balitz bezala. Zoritxarrez, drogak gehiegi erabiltzeagatik badago arazo larriak dituen jendea. Badago, bestalde, drogarik ez hartzea erabakitzen duen gazte asko, gehienak, eta erabaki ona dela esan behar zaie, ez direla tontoak, eta aurrera. Eta, azkenik, drogak hartzea erabakitzen dutenei, ezagutzaz eta arriskuak kontuan izanda egin dezatela. m



Juan Gómez

Duela hamaika urte hartu zuen Juan Gómezek (Erandio, 1965) fotografia lanbidetzat. Lehenago futbol jokalaririk semiprofesionala izan zen Erandio Futbol taldean; bigarren mailan jokatu zuen. Gaur egun erakunde publikoentzat egiten ditu argazkiak: Erandio, Getxo, Barakaldo eta Gernikako udalak, eta Bilboko Erakusketa Azoka. Erandio 1890-1990 argazki bilduma liburua argitaratu zuen iaz eta orain, gaur eguneko Erandiori buruzko bere argazkiekin osatutako beste liburu bat prestatzen ari da.



Modeloa eta telebista aurkezlea

NaiaEguzkiza

Hogeita lau urte ditu eta aurten bukatu ditu bere turismo ikasketak. Modeloa da eta iragarki eta aldizkari ezberdinetan ikusi izan ahal dugu. Orain “Mucho viaje”, Antena 3-eko saioaren, aurkezletariko bat da eta bere aurpegia inoiz baino ezagunagoa egin da. Telebista tranpolin aproposa izan da beti eta neska honek osperako bidea bertan aurkitu duela dirudi. Aukera behintzat ezinhobea da eta ez dugu uste Naiak galduko duenik.

Testua: Javi G. del Herrero / Argazkia: Mikel Martinez

—Zer ikasi duzu edo eta zertan egiten duzu lan, Naia?
—Aurten turismo ikasketak bukatu ditut baina badaramat denbora nahiko modelo lan egiten eta iragarki ezberdinetan agertu naiz; Euskaltel-ekoetan, Artea Mer-katalgunea, Caja Cantabria eta abar. “Man” aldizkarian ere agertu nintzen, baina bikini hutsean. Ni ez nintzateke biluzik aterako, aukera hori errespetatzen dudan arren.

—Eta orain telebistan. Zelan lortu zenuen lana?
—Zeppelin produktorak casting antolatu zuen, aurkeztu nintzen eta “Mucho viaje” saioan aurkezle moduan agertzeko aukera-tu ninduten.

Pertsonala

Izena: Naia Eguzkiza Eguzkizaga

Adina: 24 urte.

Jaioterria: Bilbon (Getxon bizi da)

Ikasketak: Turismo

Ikusi izan ahal dugu: iragarki ezberdinetan, “Man” aldizkarian eta abuztutik “Mucho viaje” saioan.

Zaletasunak: kirola oro har, lagunekin ateratzea eta bidaiatzea.

Gehien gustatzen zaizun telebista saioa: “Crónicas marcianas”.

Akatsik nabarmena: asko, baina ez naiz ezertaz damutzen.

Haurtzaroko irudi bat: ahizpari egiten nizkion okerkeriak.

Ezinezko ametsa: nik ditudan amets guztiak bete daitezkeela uste dut.

—Zertan datza zure lana? Eta saioa?
—Herrialde ezberdinetara joaten gara, aurkezpen txiki bat egin eta gero lekuari buruz hitz egiten dugu. Baina ez edozein herri turistikori buruz; adibidez, Kubara bagoaz ez dugu Varadero bisitatuko. Bai, ordea, hain ezagunak ez diren herri txikiak. Eta herrialde guztietan gauza bera egiten dugu.

—Noiz hasi zen “Mucho viaje” saioa? Noiz arte jarraituko du?
—Abuztuaren hasieran hasi zen eta audientzia indizeek eta Antena 3eko ardu-radunek esango dute zenbat iraungo duen, baina dirudienez gure nagusiak pozik dabiltza saioa berandu ematen duten arren, ikusle nahikotxo dauzkagu eta.

—Orain arte nora bidaiatu duzue?
—Hasi ginenetik, Kubara, Lanzarotera, Seychelles irletara...

—Hori bizitza! Lan ezin hobea...
—Oso ona da, bai; niri asko gustatzen zait turismo egitea, gainera ordaindu egiten didate, eta ondo. Gauza asko ikasten ari naiz; eta ez telebistari buruz soilik, bidaie-tan itsaspekaritza eta beste kirol asko egi-teko aukera izaten dudalako.


—Denbora asko eman behar duzu etxetik kanpo grabatu ahal izateko?
—Aste bat baino ez hilabetero, baina esan dizudanez, lana gustukoa dut, batzuetan etsigarria den arren, hamaika toma ezber-din grabatu behar ditugulako azkenean bakarra atera dadin.

—“Mucho viaje” aurkezten duzunetik, jendeak kaletik ezagutuko zaitu, ezta?
—Guk egiten dugun saioa ostiraletan gaueko ordu batean ematen dute; ordu eta egun txarrak dira, eta jende gehienak ez nau ikusten. Hala ere, Bilboko jaietan adi-bidez, txosnetan nengoela, batek baino gehiagok ezagutu ninduen.

—Telebistaren munduan jarraitzeko asmorik duzu?
—Ez dakit egiten ari naizen lan honek ate-rik irekiko didan ala ez; oraindik goiz da hori jakiteko. Baina aukera izanez gero za-lantza barik aprobetxatuko nuke. Horrela ez bada, turismo ikasketak bukatu dituda-nez, bide horretatik jarraituko nuke. Edozelan be, lanbide honetan aritzea ez da batere erraza, bat Madrilen ez badago, cas-ting gehienak han antolatzen dituzte eta. Oraingoz, nik ez daukat hara bizitzera joa-teko asmorik. m

“Lanbide hau ez da batere erraza, bat Madrilen ez badago, casting gehienak han antolatzen dituzte eta. Oraingoz ez daukat hara bizitzera joateko asmorik”






Highlands Tabern
zuzeneko kontzertuak ostiraletan

Historia: orain dela bi urte “Swimming pool” diskoteka zaharra taberna irlandarra bihurtzea erabaki zuten eta aldaketa hoberako izan zen. “Highlands tabern”ak lauretatik hamabiak arte irekitzen dute astelehenerik ostiralera, eta lauretatik hirurak arte larunbatetan. Ostiralero rock kontzertuak egoten dira. / **Nondik dator izena?** Highland-ak, Irlanda eta Eskoziako lur garaiei deitzen zaie. / **Zer da gehien saltzen dena?** Highland kafea (esne kondentsatua, kafea eta baileysa) eta garagardoen artean Cruzcampo, Guinness eta Murphy’s. / **Esaldia:** “Taberna hau lehen diskoteka zen; “Swimming pool” eta jende askok oraindik izen horrekin ezagutzen du. Antolatzen ditugun kontzertuen publizitateak ere zera iragartzen du: “Swimming pool” zaharrea”. m

Highlands Tabern, Larrabasterrako hondartza. Sopela



Brendan’s Isle
espezialitatea euren coffe-a

Historia: “Brendan’s Isle” taberna irlandarra 1999an zabaldu zuten eta eduki zuen arrakasta inork espero zezakeena baino askoz handiagoa izan zen. Geroago beste taberna berri bi ireki zituzten kale berean eta gaur egun hor biltzen da Sopelako gau giro nagusia. / **Nondik dator izena?** “Brendan’s isle”, “Brendako irla” esan nahi du. Nondik datorren izena? Auskalo! Zerbitzariak, behintzat, ez dakite; jabeek agian... / **Zer da gehien saltzen dena?** Garagardo arruntak (garagardo beltzak oso zapore gogorra du eta jende gehienari ez zaio gustatzen) eta tabernaren espezialitatea; Brendan’s coffee izeneko edaria; esne kondentsatua, kafea, baileys eta esnegaina darmana. / **Esaldia:** “Hona garagardo eske datorren jende gehienak ez daki zelan zerbitzatu behar diren pintak; bi kolpetan egiten da, bigarrenak hirus-ta bat margoztu behar du garagardoaren bitsean”. m

Brenda’s Isle, Sipiri kalea, 14. Sopela



Mulligan
garagardotan Tennen’s nagusi

Historia: orain dela lau urte zabaldu zituzten Mulligan tabernako ateak Leioan. Arratsaldeko lauretan hasten dira lanean eta goizeko hirurak arte ez diote kafeak zein garagardoak zerbitzatzeari uzten. Nahiz eta goizetan taberna zabaldu ez, arrakasta itzela du leioarren artean eta horregatik zaila izaten da tragu bat hartzeko mahai liberetik topatzea bertan. / **Nondik dator izena?** Mulligan hitzak ez du itzulpenik eta zerbitzariak ere ez dakite nondik datorren ezta zergatik aukeratu zuten. / **Zer da gehien saltzen dena?** kafe irlandarak, koktelak... Garagardoen artean, Tennen’s markakoa izaten da bezeroek gehien eskatzen dutena. / **Esaldia:** “Taberna irlandarra den arren mota eta adin guztietako jendea etortzen da hona. Gehiena, hori bai, jende galanta eta dotorea izaten da”. m

Mulligan, Iparragirre, 2. Leioa

Gaur egun nekez topa daiteke taberna irladarrrik ez duen herririk gure inguruan. Antzekoak dira denak, hau da, egur asko, antzinako tramankuluak, atzeritik ekarritako garagardo mota desberdinak... Uribe Kostan era honetako bost taberna daude eta gu bostetan egon gara. Testua: Javi G. del Herrero / Argazkiak: Mikel Martínez

Duela bost urte, zerbait berria gertatzen hasi zen Euskal Herrian; taberna irlandarren fenomeno. Lehenengoak Bilbon ireki zituzten eta segituan arrakasta ikaragarria lortu zuten. Geroztik, fenomeno herrialde osoan zehar zabalduz joan da eta gaur egun nekez topa daiteke taberna irladarrrik ez duen herri-rik gurean. Uribe Kostan era honetako bost taberna daude; bi Leioan, bat Algortan eta beste bi Sopelan. Leku atseginak, beroak eta gozoak izaten dira. Gehienak egurrezkoak, taberna berezi hauek Irlandan egongo bagina

legez egoteko aukera eskaintzen digute; hango garagardoak eskainiz, musika irlandarra jarritz... Apainketa ere irlandar tipikoa da eta Estatuko taberna irlandar batzuetan (Benidorren eta leku turistikoetan gehien bat) ingelesa baino ez dakiten zerbitzariak egoten dira.

Uribe Kostan dauden taberna irlandar hauen arrakasta ez da ez beste lekuetan baino txikiagoa izan; Leioan adibidez, taberna bi dauden arren, biek lan nahikoa daukate (ordutegi ezberdinak dituztelako agian); Algor-

tako taberna berriaren arrakasta itzela bezain harrigarria izan da eta Sopelako biak egun batean bai eta hurrengoan ere beterik egoten dira arratsaldeko edozein ordutan.

Gu bost taberna ezberdin hauetan egon gara, ikusten, konparaketak egiten, aztertzen, zerbitzariekin berba egiten eta taberna batean baino gehiagotan, garagardo irlandarrak dastatzen; halabeharrez, ondoko lan txiki hau prestatu behar zen eta. Hauexek dituzue Uribe Kostako taberna irlandar guztiak. Ezagut itzazu! m

The Piper’s Irish Pub
bazkariak eta guzti

Historia: orain dela lau hilabete zabaldu zuten taberna hau Roberto eta Isuzko bazkideek eta eduki duen arrakastak eurak be harritu ditu. Goizeko zortzietan zabaltzen dute eta gauean berandu itxi. Bazkariak (eguneko menuak 1.375 pezetetan) ematen dituzte eta “The piper’s irish pub” elkar-tzeko lekua bihurtu da dagoeneko getxoztar askorentzat. Ostegunero, zortzietatik aurrera kontzertuak eskaintzen dituzte; mota guztietako musika, lasaia beti ere. / **Nondik dator izena?** “The piper’s irish pub”, “Gaitari irlandarraren taberna” esan nahi du euskaraz. Jabeek gustukoa zuten izena eta gehiegi pentsatu gabe, halaxe bataiatu zuten. / **Zer da gehien saltzen dena?** Garagardoak orokorrean (Guinness, Murphy’s, Heineken,...) eta kafe irlandarrak. / **Esaldia:** “Egurrezkoak direnez, taberna irlandarrak abegiko-rrak dira eta, nire ustez, hor dago euren arrakastaren sekretua”. m


The Pipers Irish Pub, Basagoiti, 47. Algorta



Paddy O’Brian
Guinnessa barra-barra

Historia: Leioako Sakoneta kiroldegia-aren alboan dagoen (leku apoposa benetan) taberna hau orain dela hiru urte ireki zuten, Bilbon zabaldu zituztenen arrakasta ikusi ondoren. Harrezkero ez zaie lanik falta izan taberna- ren barraren atzealdean lanean dabil-tzan bost lagunei. Gaur egun Paddy O’Brian taberna oso ezaguna da Leioan eta modu berean, jende askoren bilgunea. / **Nondik dator izena?** Paddy O’Brian izen oso arrunta da Irlandan, John Smith Estatu Batuetan bezala. / **Zer da gehien saltzen dena?** Guinness garagardoa, Valentzianoak, kafe irlandarak... / **Esaldia:** “Taberna hauek beste izakera bat daukate; apainketagatik, egurrezkoak direlako edo eta garagardo irlandarrak dauzkagulako. Auskalo zergatik baina hemen giroa guztiz ezberdina da”. m

Paddy O’Brian, Sabino Arana, 78. Leioa





Abrakotxapiroia

Uda hasieratik eta udagoiena hasi arte Abrako urak txalupa txikiz josita ikus daitezke. Gehienak txapiroitan dabiltza, batez ere egunsentian eta egunak iluntzen duenean. Jaki oso preziatua eta urria da Abrako txapiroia. Arrantzatzen den gehiena inguruko jatetxeek erosten dute, dozena 2.500 pezetatan. Algortako Portu Zaharrean galdezka egon gara, han kontu hauetaz asko dakite eta.

Testua: Marcos Bretos / Argazkiak: Mikel Martinez

Maiatza heldu bezain laster, Portu Zaharreko txapiroizaleak neguko txikiteoa alde batera utzirik, kaira hurbiltzen dira txalupak arrantzarako prestatzera. Han zain Javi Sagasti egongo da, Algortako erriberran azken arotza, Portu Zaharreko ia txalupa guztien egile izan zenaren ikaslea; gizon hura Lucio zen.

Neguan txalupak lehorrean egon ondoren, berriro itsasoratzeko konponketak egin behar dira, orduan Sagasti arotz bihurtzen da eta arrantzale guztiei txalupak konpon-tzen laguntzen die. Maiatzean txapiroizale guztiak txalupak margozten, txukuntzen eta

apaintzen ikus ditzakegu Portu Zaharrean; garai bateko arrantzaleen ondorengoak dira.

Arrantzaren hasiera Maiatza eta ekaina bitartean txapiroien erru-naldia hasten da, badian sartzen badira ere batez ere Abratik kanpo gertatzen da hau. Errun egitera etortzen direnak izaten dira arrantzatzen diren lehenengo txapiroiak eta jeneralean neurri handiko txapiroiak izaten dira.

Enri Montanoren esanetan –Portu Zaharrekoa eta txapiroiez asko dakiena– lehen txapiroiek Abraren barnealdean erru-ten zuten, baina superportua eraiki eta gero,

honen aurka jotzen dute txapiroiek, harresi baten modukoa da eta horregatik, Muskizko La Arena hondartza txapiroiak arrantzatze lekurik onena da gaur egun inguruotan.

Enri Montano (berari buruz Portu Zaharreko hondartza txikian lo egiten duela esaten da, edozein ordutan hantxe dago eta), bera arrantzaleek arrapala azpian daukaten txabolaren zaindaria da, bere etxea baino hobeto jagoten duela ere esaten da. Enrik, uztailetik aurrera txapiro kumeak arrantzan egiten direla esan digu, atzamar baten neurriko txapiroia dugu hau, irailera-



Abrako txapiroia
Loligo vulgaris

Txapiroia molusku bat da, zefalopodoen espeziekoa eta loliginidoen familiakoa. Gure uretan bizi diren gehienak loligo vulgaris espeziekoak dira. Harrapatzen direnak 10 eta 20 cm arteko luzera badute ere, metro erdiko luzera har dezakete. Talde handitan bizi dira eta uda eta udazkenean ur bero bila kostaldera hurbiltzen dira.

1– Ez da erraza dozena bat txapiro harrapatzea Abran. 2– Enrique Montano, arrantza asko dakien Portu Zaharreko gizona. 3– Javier Sagasti, Portu Zaharreko azkenengo arotza lanetan. 4– Gualber Royo, txapiroiak arrantzatze ohiturari eusten dion gazte bakarrenetarikoa da



M. Bretos



M. Bretos



ko handiagoa da, esku baten neurrikoa edo. Urrian, normalean, Abratik alde egiteko behar duten neurria lortzen dute. Bestalde, txapiroia aseezina da eta horregatik sarritan parrotxilaren (antxoa txikia) atzetik sartzen da Abrara.

Txapiroia arrantzatze unerik egokiena Enriren esanetan egunsentia unerik egokiena da, iluntzea une ona bada ere. Enrik fokuarekin arrantza egitea debekatuta dagoela azpimarratu digu, argiak antxoak erakartzen dituelako eta hauek txapiroia. Teknika hauek erabiliz gero, segituan agor-



Gualber, eskuetan “abuztukoa” edo “agostero” deitzen zaion txipiroi batekin. Sasoi horretan txipiroiak hartzen duen tamaina egokiena izaten da jatetxean zerbitzeko. Kozinatu ostean tamaina erdia hartzen du.

Errezeta

Gualber Royo txikitatik ibili izan da zartagin eta lapikoen artean. Orain dela hamasei urte hasi zen sukalde lanetan eta gaur egun, Portu Zaharreko Karola jatetxeko sukaldaria da. Aditua da txipiroi prestaketan.

Azaldu digun errezeta hau, bere familian belaunaldiz, belaunaldiz pasatu da. Amamak bere amari irakatsi zion, eta amak berari. Pazientzia eduki behar da, plater hau ondo prestatzeak ordu pare bat behar duelako.

Aluminiozko lehengo kazolak egokienak dira txipiroiak prestatzeko. Hasteko, su oso ahulean aurretik txikitutako tipula gorria oliba oliotan potxatzen jarri behar da. Tipula kazolan apur bat itsasten denean, baina lotu barik, puntuan dago. Ordubete gutxi gorabehera. Ondoren, aurretik garbitutako eta betetako txipiroiak banan-banan sartuko ditugu kazolan. Komenigarria da kazola handia izatea, txipoi bakoitzak ondo egingo badira behintzat, bere lekua behar duelako. Sua oso ahul mantendu txipiroiak egin arte, hau kolore marroia hartzen duenean izaten da. Beste ordu bete. Saltsa horrenbeste denbora sutan dagoenez, lehortuz doa, fumet bat balitzan, txipiroien ur bera erabil daiteke. Ondoren, basobete txakolina gehitu eta sua minutu pare batez igo, alkohola lurrundu dadin. Gero tomate naturala eta tintak gehitu behar dira. Komenigarria izaten da plastikotan eros daitezkeen horiek etxean izatea, txipiroien tinta batzuetan ez da nahikoa izaten eta, saltsa iluntzeko. Saltsa eginda dagoela jakiteko badago modu erraz bat. Koilara batekin txipiroien gainean bota, itsasten ez bada, saltsa egin barik dago. Txipiroiari itsasita geratzen denean puntuan egongo da. Amaieran azukrea eta gatza gustura bota. Kitto. Gogoratu behar da plater hau, egun batetik bestera gozoago izaten dela beti. On egin! ^m

osagaiak (lau lagunentzat)

dozena eta erdi Abrako txipiroi • txipiroen tinta • 3 tipula gorri (handiak) • perrexil apur bat • baso erdi tomate natural • txokolate onza bat edo azukrea • basobete txakolina • gatza • oliba olio

tuko litzateke txipiroia Abran. Itsasoaren baldintzei dagokienez urak ez du garden egon behar. Horrela bada, animalioek argi ikusiko lukete txipironera eta, jakina, ez lukete tenk egingo.

Zelan arrantzan egin: tresneria

Tresnarik garrantzitsuena txipironera da: 5 zentimetroko berun zati bat izaten da, hari batez estalia eta dozena bat amuz errematuta; amu oso finak, orratzen modukoak.

Deskripzio hau egin ostean –ez dakit argiegia izan den–, txipiroia zelan arrantzatzen den azaltzen saiatuko gara eta horretarako Gualber Royorengana jo dugu. Gualber Karola Etxea jatetxeko nagusia eta

Portu Zaharreko txipiroiak arrantzatzeko ohi-turari eusten dion gazte bakanenetakoa da.

Gualberrek, aukeratutako lekura heldu ondoren, bai Portu Zaharretik txalupaz, edota Aririluzetik gasolinoz, harpeoa (ankla txikia) jaurti behar dela azaldu digu. Harpeoa itsas hondoon ondo sartuta dagoela ziurtatu eta gero, txipironerak uretan sartuko ditugu, normalean bi, esku bakoitzarekin bat erabiltzeko. Itsas hondora heldu ondoren, braza bat jaso behar da egunez egiten bada arrantza, eta gauez bada, ur azaletik braza bitara. Honen ostean txalupatik tirakada txikiak egiten dira, etengabe. Horrela txipironeran txipiroiren bat dagoen jakiten da. Txipiroiak behetik gora txipironeraren

aurka egiten du, hasieran zer den ikusteko ikutzen du, gero berehala besarkatzen du eta beherantz egiten du. Orduan tirakada bat nabaritutako du arrantzaleak, eta orduan, segituan eta arineketan txipironera igo behar da etenik gabe. Behin azalean, azkar txalupara sartu behar da txipiroiari ttu egiteko astirik eman gabe, tinta defentsarako erabiltzen duelako, eta hau gertatuko balitz gainontzeko txipiroiak alertan jarriko litzuke.

Jaki oso preziatua eta urria da Abrako txipiroia, arrantzatzen den guztia exterako edota inguruko jatetxeetan saltzen da eta ez merke: dozena 2.500 pezetatan egoten da eta. Portu Zaharreko jatetxeetan ederto prestatzen dituzte. Ahaleginak merezi du. ^m

Txipiroi erraldoiak Mexikon

“Lan istripuetan uretara jausitako arrantzaleen artean badira txipiroiek jandakoak”

Unai Markaida zientzialari getxoztarra Mexikon bizi da duela hamar urte. Han txipiroi erraldoiak ikertzen dihardu Kaliforniako Golkoan. Abrakoak baino *apur bat* handiagoak diren animaliei buruzko artikulua eskatu diogu, berak ondo ezagutzen ditu eta.

Testua: Unai Markaida

Humboldt-eko txipiroi erraldoia, *Dosidicus gigas*, ez da bere taldeko benetako txipiroi erraldoia *Architeuthis* bezain handia (15 m eta tona bat), baina arrantzatzen den txipiroien artean handiena dugu, batzuk 40-50 kg pisua eta 3 metroko luzera izaten dute. Pazifikoaren ekialdeko itsaso aberatsetan bizi ohi da, Txile eta Kalifornia artean; batez ere, ugaria da Kaliforniako Golkoan eta Peruko iparraldeko uretan. Toki hauetan arrantza handia jasan du azken urteotan. Peruko itsasoetan Japonia eta Koreako faktoria-ontzi handiak 200.000 tona txiproi harrapatzea ere lortu dute denboraldi batzuetan. Kaliforniako Golkoan oster, egiten den arrantza artizanalaritza jo daiteke; txipiroiak eskuz potera erraldoi batzuekin harrapatzen dira eta, gauez. Urte batzutan 100.000 tonatik gora jaso dituzte. Gehiena Koreara bidaltzen da, ekialdeko herriek direlako txipiroien merkatua kontrolatzen dutenak, arrantzaren beste parte bat Europara eta Mexikon sortu berria den merkatuetan saltzen da. Estatu espainiarreko zenbait merkatutan ere topa daitezke honen okela zati ederrak. Hala ere, baliabide natural honen potentziala askoz handiagoa da, izan ere beste txipiroi asko bezala, lehen mailako proteina iturri gutxi esplotatua da.

Oso igerilari indartsua da txipiroi hau, uretatik kanpo zenbait metro ‘hegan’ egin dezake eta bere bizitzan zehar milaka kilometroko bidaia egiten du. Itsasoetako sakonera erdiko animaliekin elikatzen da: txipiroi txikienek ganba txikiak harrapatzen dituzte; helduek, berriz, miktofidoak deitzen diren antxoen moduko arrain txiki, argi eta oso ugariak jaten dituzte. Gauero animaliatxo hauen bila itsas azalera hurbiltzen dira, arrantzaleen eremura. Egunez, oster, txipiroiak eta bere harrapakinak ur ilunetan galtzen dira; ikerketa batean 1.200 metroko sakoneran egon daitezkeela frogatu zen. Txipiroi handienek etsai edo harrapakari gutxi dauzkate; katxalotea da haietako bat. Animalia txikiak jan arren, bere tamainak eta taldetan bizitzeko daukan ohiturak arrisksutsu bihurtzen du arrantzaleentzat: lan istripuetan uretara jausitakoen artean badira txipiroiek jandakoak.



Bere ikerketarako, Unai Markaida Mexiko arrantzaleekin ibili da beharrez Kaliforniako Golkoan. Eskuetan *Dosidicus gigas* motako txipiroi bat du. Txipiroi honek hiru metroko luzera eta 50 kiloko pisua izan dezake.

Proteinetan finkaturiko metabolismo bati esker, oso azkar hazten dira; animalia handienak urtebetetik gora bizi dira. Bere bizitzaren azken sasoian birsortzen da, eme handienek hil baino lehen 35 milioi arrautza erruten dituzte. Inork ez ditu animalia honen arrautzak topatu, eta itsaso sakonean daudela susmatzen da. Aste batez-edo jaio berriak ur azaletik hurbil bizi dira, baina naturako legeak direla medio, hauetariko oso gutxi ailegatuko dira heldutasunera. ^m



gaizka escudero / villabotas-ekoa

Gernikako indaba zuriak txirlekin

L aister Gernikan sukalde zaleok hutsik egin ezin dugun hitzordua izango dugu: Gernikako azoka. Han primerako jeneroa eros daiteke, adibidez, hango indaba zuri paregabeak. Hauek txirlekin batera janda gutizia dira. Hasteko, bezperan indabak uretan jarri behar dira. Lapiko batean, oliba olio apur bat, indabak, eta barazkiak broumuase-an zatituta (hau da, oso zati txikitan) sartuko ditugu: tipula, azenarioa, tomatea, porruak, piper berdea, berakatza eta txorizo-piperra. Su ahulean egiten utziko ditugu, ordu pare bat gutxi gorabehera. Bestalde, zartaginean, oliba oliotan, berakatza, gindila, ardo zuri eta baldin badaukagu, arrain salda apur bat jarriko ditugu. Berakatza urreztatu aurretik txirlak botako ditugu, zabaltzen direnean, eginda daude. Amaitzeko guztia nahastu eta segituan mahai gainera. Egun bate-tik bestera oso gozo egoten dira. ^m

osagaiak

Gernikako indabak • txirlak • tipula gorri bi • azenario bi • hiru tomate ondu
piper berde bat • arrain salda • ardo zuria • hiru porru • berakatza • gatza • oliba olio



MIKEL MARTINEZ



itsaso arana / jolastoki-koa

Botila (I) jakin behar den guztia

B otilak greziar eta erromatarren garaietatik XVII. mende-ko Ingalaterra arte aldaketa asko ezagutu ditu. Greziarrek eta erromatarrek, ontzi praktikoa baten moduan ulertzen zuten, XVII. mendean berriz, ardoaren kalitatezko ezaugarriak mantentzeko kezka, gaur eguneko itxura izatea ekarri zuten.

Jatorriak: Greziar eta erromatarren garai klasikoan egurrezko, buztinezko zein animalia larruzko fudreetan gordetzen zen ardoa. Garai hartako botilagintza Tel Aviv-eko Haretz museoan ikus daiteke, eta bertan ardoa zerbitzeko ontzi hauskorak ikus daitezke. Ontzi haiek ez ziren ardoa kontserbatzeko batera egokiak.

Merkatari holandarrek ardoaren bizi iraupen laburrarekin eta merkatuetarako bidaia luzeetan izaten zuen kalteekin kezka-turik, ardoari alkohola eta sufrea botatzen hasi ziren.

Botilaren jatorria: Ardoa eta beiraren arteko erabateko harrema-na, 1662an Sir Kene Digby kortesau britaniarrak egin zuen lehenengo botilekin hasi zen. Botila tubularra zen, lepo jausiak zituen, sama luzekoa eta forma zilindrikoa zuen. Sir Kenek botilak etzanda gorde ahal izateko asmatu zuen botila mota hau. Garai hartan ez ziren kortxozko tapoiak ezagutzen, egurrezkoak ziren eta soka labur batekin botilara lotzen ziren. Hauxe da gaur egun ezagutzen dugun botilaren jatorria. Holandarrek “ingeles moduko botila” izenarekin bataiatu zuten. Frantsesek segituan euren ganatu zuten botila mota hau ardo gorriak exportatzeko eta “bordelaise” izena jarri zioten.

Hastapenetako botila haiek gaur egunean duten kolore oliba berdea zuten, ia gardena. Hau txiripaz gertatu zen, izan ere, labeetan erabiltzen zen ikatzak botatzen zuen keak beirari kolo-re hura ematen ziolako. Geroago kolore ilun horrek ardoa argi-tik babesten zuela ikusi zen eta hori ardoaren kontserbaziorako gauza ona zen. ^m

EtxekoMahaia

Algortako Portu Zaharrean Nekane Vadillo gazteak aldi berean denda eta jatetxea den “Etxeko Mahaia” lantzen du. Bertan etxe giroan betiko zaporeak eta berriak dastatu daitezke

Testua: Jokin Aspuru / Argazkia: Mikel Martinez



Etxeko Mahaia-ko apalak kalitate handiko jeneroaz beterik daude

Portu Zaharrean dauden jatetxeetara jen-dea arraina jatera joaten da. Hantxe ber-tan ordea, badago bestelako eskaintza egiten duen lokal txiki eta atsegin bat: Etxeko Mahaia. Esan bezala, Etxeko Ma-haia jatetxea eta denda da aldi berean. Dendan primerako produktuak ditu sal-gai Nekane. Gehienak Euskal Herri-koak dira: txakolina, sagardoa, patxarana, ardoa, gaztaia, esparragoak, pateak... Orain eskaintza zabaltzen ari da eta adi-bidez, Galiziako orujoak edota Ca-talunyako ahuntz gaztak topa daitezke bertan. Nekane produktu bereziak bila-tzen ditu bere apalak hornitzeko, izan ere, preziotan ezin du denda handiekin lehia-tu, baina bai, ordea, eskaintzen dituen produktu berezietan, beste inon topa ezin daitezkeenak.

Bigarren solairuan hogeia lagunentza-ko jantoki txukuna eta goxoa dago, biko-tean afaltzeko perfektua. Han, azpiko solairuko apaletako jeneroa ez ezik, Ne-kanek mimoz prestatzen dituen platerak dastatu daitezke. Hara afaltzera doanak zapora ezagunak aurkitu ditzake, adibi-

dez, bakailao ajoarrieroa, barraskiloak Nafarroako erara edota pikilloko pipe-rak onddoz beteak. Nahi izanez gero, ordea, Etxeko Mahaia sentsazio berriak bizitzeko aukerak eskaintzen ditu, adibi-dez, ahate pernila aguakate eta aran belt-zekin edo, ahate paparoak (mollejak) sagar konpotarekin. Derrigorrezkoa da “Zugar-eko kremositoa piku mermelada-rekin” (fundie antzeko bat) probatzea; plater gogoangarria gaztaia gustukoa dutenentzat. Postre moduan Tolosako teilak eta zigarriloak har daitezke, baina aukeran, nik nahiago Begoñak, Nekaneren lankideak, prestatzen eta bi-kain atontzen dituen izozkietariko bat.

Esandakoa, heltzear daukagun negu-ko gau hotzen batean, inor txunditu nahi edo behar baduzu, Etxeko Mahaian, txoko goxoa eta beroa aurkituko duzu. ^m


Etxeko Mahaia

Aretxondo 13, Portu Zaharra (Algorta), 94 460 75 01
Komenigarria da asteburuetan erreserba egitea
Batez besteko prezioa: 3.000 pta.
Ordutegia, 20:00etan zabaltzen dute
Domeketan eguerdian zabalik / Astelehenetan itxita

EREAGA
Bidaiak
Autobusak

T: 453 08 16 - 909 40 59 88
GETXO

GOIZEAN



“Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pent-

Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Litxarreriak

Orduña Mendatea 1
T: 430 22 13
GETXO

Telletxe 13
T: 460 02 88
ALGORTA

GAVRKO



GIZONENTZA-
KO MODA

Telletxe 5
ALGORTA
T: 4607084

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA

BEROGAILU ETA ITUR-



T: 430 53

Sarrikobaso 15

48990

Loteria
Sopela

Iparragirre 6, Sopela

Erosketa etxera eroaten dogu!!



ORDUTEGIA

Lan egun eta zapatuetan:
9:00-14:00 / 17:30-21:00
Domeka eta jai egunetan:
9:00-14:30

dena-ona
supermerkatua

Gatzarriñe 5, % 94 676 19 99 LARRABASTERRA

Egunkariak
prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero,
etxera eramaten dizugu
egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78
T: 94 491 27 34

4 bide
pinturak






Lau bide 7 • Tlf/Fax: 94 676 52 40 • SOPELA
Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

UK ALDIZKARIA
jaso nahi duenak deitu
baino (94 491 13 37)
ez du egin behar.

Pozik onartzen
dirugu zuen dirulaguntzak:
BBK 2095 0022 00 91 02483676



TXIBERRI
e d a n t o k i a
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15

[horoskopoa]

URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Sentibera eta errukibera sentituko zara zure inguruko lagunekin. Inbertsiorik eskaintzen badizute, zuhur jokatu. Bestalde, zeure bizimodu desordenatuak kalte fisikoak eragin ahal izango dizkizu.

OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Autoa edo etxea aldatu nahi badituzu oraintxe da une egokia. Saiatu zaitetz zure lanean arreta geiago jartzten. Zure osasuna gehiago zaindu beharko zenuke.

ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)
Zure bizitza sentimentala sakonean aztertuko duzu. Arlo ekonomikoari dagokionez, zeure senari kasu egin. Besteek zu errespetat zaitzaten, aldarrika itzazu zeure ekubideak.

AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)
Harremanik gustagarrienak betiko lagunekin izango dira egunotan. Ez ezazu lotsarik sentitu utzi zenuena eskatzeagatik, zeurea da. Pertsonarik osasuntsuena zarela pentsatuko duzu.

GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)
Familiarekin zenuen zorra ordaindu behar izango duzu. Jenderekin tratuan ondo moldatzen zara, segi horrela. Gogoratu, prebentzioa da osasun ona izateko sekretua.

META



(Irailak 17 urriak 16)
Izarrek maitasunerako sasoi egokia iragartzen dute. Hortaz aprobetxa ezazu. Ez da inbertsioak, edota dirua jokatzeko garai txarra. Osasun aldetik makal ibiliko zara, zaindu zaitetz.

HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)
Beti zalantzatan zabiltra, bada apur bat arriskatzeko garaia. Lanean, baliteke gora egiteko aukerarik izatea. Zure osasuna egunotan ez da inoren inbidia izango.

LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Zeure sentimenduak azaltzeko gaitasun handia izango duzu. Lanari dagokionez sasoi bete betean zaude. Baina maite duzun norbaitek tristura, depresioa eragin diezazuke.

HAZIA



(Urriak 17 azaroak 15)
Erromantizismoa eta besteen alderik onena ikusteko joera sentituko duzu. Ezin bestela izan, sakonean horrelakoa zarelako. Aurrerantzean zure osasunak onera egingo du.

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Saia zaitetz moldakorragoa izaten, batez ere zure lagunarekin. Izan zaitetz eskuzabala inork laguntza eskatzen badizu. Lanean "pilak jarri". Zure osasunak onera egingo du.

IRATZEA



(Abuztuak 18 irailak 16)
Maitasunean, egoera gatazkatsu bati aurre egin beharko diozu. Lanean dena askoz hobeto aterako zaizu. Zeure osasunak txarrerara egingo du, zaindu zeure burua.

NEGUA



(Azaroak 16 abenduak 20)
Maitasun harremanei arreta gehiago jarri, bestela damutuko zaizu. Ustekabeko diru bat helduko da zure eskuetara, ez xahutu. Osasuna ez da oso orekatua izango.



MUNGIA




oKINDegia

Algortan badaukagu
artisaunen ogia
izen eta jatorriz
da “ogi mungia”.

Goizero lortzen dogu
obispoen guleria
probatu bada edo ez
dan benetako egia.

KASUNE 28 - T: 4301076
ALGORTA

[komikia]





Bitor Egurrola

Erromoko eskola 1957

Ordura arte La Campa eskoletan ibilitako haurak, 1957/58 ikasturtean gaur egun Erromoko Kultur Etxea dagoen eraikineri aldatu zituzten bertan eskolak hartzeko. Argazkia kanpoan, handik hurbil egina dago eta bertan Erromoko ikasle gazteak Don Aureo "Mister Látigo" maisuarekin batera azaltzen dira. Irakaslearen izengoitia garbi adierazten du zer-nolako zen bere eskuzabaltasuna uneekin; "opari ederrak" egiteko ohitura handia ei zuen. Valladolideetik gurea etorria zen Don Aureo, gaur egun Plenzian bizi da. Argazkia hartua dagoen garaian, eta eskola gehinena bezala, mutiko haiei esne hautsa, gazta hori eta amerikarra eta gurin gazia ematen zitzaizkien eskolan EEBBek ematen zuten laguntzari esker. Erromoko eskolak leku berean segitu zuen 1972an Pedro Aistegi ikastetxea martxan jarri zuten arte.

Lehehego lerroan: Ricardo Ruiloba, José Angel Akeixe, Francisco Franconeri, José Luis Ríos "Peloiti", Enrique Portugal, Luis Mari Escudero "Txidu", Joseku Casanueva "Manako", José Antonio Asensio "Piru", Aureo Moyano, José Angel Sánchez "Perikles", Javier Trigueros. **Bigarren lerroan:** Alfredo Valdemoro, Angel Juez "Txamako", José Mari Lopategi, Luis Ugarite, Angel Segura, Angel Martinez "Tinez", Eduardo ? , José Miguel Saguroa "Txemi" (GB), Javier Ibarra, Juan Mari Barrena, Pedro Mari Oxcantesana "Peli", José Mari Zuazo "Culos" (GB), Juan José Fernández "Txanjo", Juan Mari Velasco, Juan Mari Azkue "Batusi". **Hirugarren lerroan:** José Mari Lekeika, Luis Angel Axpe "Enredaballes", Txema Oxcantesana, Txomin Larzabal, Jantxu Mendieta, Antonio Pozo. / **Laugarren lerroan:** Juan Mari Azkora, Julián Ateagabellia, José Mari Cabolia, Mario Luque, Joseba Zuazo "Txikiu", José Ricardo Sáez, Rafa Martínez, Jon Juaristi, Magencio ? , Joseba Ujaristi.

Euskararen Herritik Munduari begira

SARRERA
IREKIA



urriaren 16tik 20ra bitartean

Leioan

Informazioa:

Tfnoa.: 94 400 80 44 / Faxe: 94 464 82 60

euskarazerbitzua@leioa.net



LEIOAKO



Bizkaiko Foru
Aldundia

Diputación Foral
de Bizkaia

